



Bake prozesua aurrera estatuez gaindi

- **Carmen Gisasola** «Katuari kriskitina lehenengo jartzeko ausardia erakusten dutenak *traidoretzat* jotzen dira, eta ondoren, multzoa atzetik datorrenean, *aldaketa historikoa* omen da»
- **Jokin Sarasola** 85 urteko korrikalari nekaezina
- **Hizkuntza ereduak Nafarroako eskoletan** Bizikidetzaren aitzakian euskara arriskuan
- **Garbiñe Ubeda** «Egia erdiak egia osoaren antzik izango ote duen ez dakigunean, hobe isilik»
- **Nafarroa** Herri mugimenduen aliantzak instituzioak eraldatzea helburu



Itzultzaileak: *Amaia Lasheras eta Aritz Branton*

Ilustratzailea: *Kepa Peñil*

Esataria: *Pablo Sanz*

Editorea: *Hamaika Itzulpen*

Ingalaterrako ipuigile maisuaren bi istorio euskaratu dira lehenengo aldiz. Ironia eta umorearekin batera, Sakik garaiko hezkuntza zorrotza eta zentzugabekoa -1870etik 1916 arte bizi zen- gaitzesten du.

Eskuratu dohainik eleberri honen e-liburua eta audio-liburua

ARGIA eta 11itzulpen-en eskutik, "Saki"-ren **e-liburua** eta **audio-liburua** dohainik eskainiko zaizkie ARGIAko harpidedunei.

Eskuratu zure pasahitza:



+34 943 371 545



harpide@argia.com



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko martxoaren 2a, 2.405. zenbakia

ASTEKO GAIA

ETA-REN DESARMATZEA Arma barik egon nahi du ETAk urtebete barru. XABIER LETONA, URKO APAOLAZA AVILA / 4

ELKARRIZKETAK:

- **MARIAN BEITIALARRANGOITIA** URKO APAOLAZA AVILA / 7
- **GARBIÑE BIURRUN** MIKEL ASURMENDI / 9

IRITZIAK EMILIO LOPEZ ADAN *BELTZA*, JOXEMARI OSTOLAZA

PERTSONAIA

JOKIN SARASOLA: «Osasunagatik nabil ni korrika, ez dago beste misteriorik». MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

SAGARDOTEGIAK Ekologikoak salmenta handia ez, baina kalitatezkoa bai. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Lanpostuari eutsi ez arren, borrokak merezi izan du. LANDER ARRETXEK / 18

BLOGETAN! TOPAKETA Bederatzi blogariren bizipenak. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 19

IRITZIAREN LEIHOA

ARMAIRUAK JUNE FERNANDEZ / 20

SESTAO BERDEAGOA IÑAKI BARCENA / 22

BELTZENIAKO IZPIRITUA PELLO ZUBIRIA KAMINO / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Parpaila atergabe. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Palestinari. MIREN AMURIZA / 23

ERDIKO KAIERA

GARBIÑE UBEDA: «Biziraupena kontsigna guztien gainetik dago». MIEL A. ELUSTONDO / 24

HAUR ETA GAZTE LITERATURA Erabilgarritasunari begira, aurpegia berritu du *Behinola* aldizkariak. GARBINE UBEDA / 28

LITERATURA IGOR ESTANKONA / 30 **MUSIKA** JOXI UBEDA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Dantza ere hizkuntza gutxitua delako. MYRIAM GARZIA / 33

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

CARMEN GISASOLA: «Presoen auzian pauso sendoagoak behar dira». IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 37

EUSKARA ALBISTEAK, EKONOMIAREN TALAIA / 43

HIZKUNTZA EREDUAK NAFARROAN Bizikidetzatza, baina gaztelaniaz. ANDER PEREZ / 44

ALDAKETA SOZIALERAKO BATZARRA Jendartetik dator aldaketa Nafarroan. ANDER PEREZ / 46

NET HURBIL Dirudunek ez dutela gehienon munduan bizi nahi. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Arma barik egon nahi du ETAk urtebete barru

ETAk bere armak desegiteari ekin dio eta, dena ondo joanez gero, urtebetera ez du armarik izango eskuartean. Urrats handia, txikia edo hutsala balorazioen arabera. Bere posizio itxian, gainera, Espainiak bitartekaritza lana egiten ari den nazioarteko lan taldearen zeregina zuzenki tratatzea erabaki du, ia kriminalizazio posizioetara iritsi arte.

| XABIER LETONA |

ETAK BERE ARMAK desegingo ditu urtebetean eta lehen urratsa eman du jada. Hori da Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak (NEB) otsailaren 21ean iragarri zuena eta horren pasarte bat da bideoan ikusi ahal izan zena: bi etakide eta NEBeko kide Ram Manikkalingam eta Ronnie Kasrils mahaiaren gainean dauden armak eta beraiek eskuartean duten paperaren zerrenda bat datozela egiaztatzen.

Ekitaldiak denetariko balorazioak merezi izan ditu, beste urrats sendo bat dela esatetik –EH Bildu, adibidez– antzerki hutsa dela esatera –PPko Gobernuak–. Tarteko balorazioan egon dira EAJ eta Eusko Jaurlaritza: ez da espero zutena, baina urrats txiki bat da eta norabide egokian doa. Hala ere, Jaurlaritzak NEBren lana sostengatu eta bideratu du eta horrek garrantzi handia du prozesua behar bezala elikatze aldera. PSE-EE ez da Aieteko Hitzarmeneko posizioraino heldu, baina aho txikiarekin bada ere, positiboki baloratu du ETAREN lehen urrats hau. Modu orokorragoan ikusita, asko izan dira ETAREN pausu hau antzezlan bailitzan irudikatu dutenak eta halako taulartzeak baztertze eta desegiteko eskatu diote erakunde armatuari.

Baina ez da antzerkia ez, eta ezta txantxetako ere. 2011ko urritik ETAk ematen duen urratsik garrantzitsuenak da eta munduko edozein lekutan armen indargabetzea sinbolismoz eta garrantziz betetako unea bada, hemen antzerkia deitzen zaio edo delitu gisa hartzen da, bidea oztopatuz. Antzezlan gisa ikusiz gero,

hala hartu beharko litzateke baita ere gainerako aktoreen lana, Jorge Fernández Espainiako Barne ministroaren ezezkotik eta Jaurlaritzaren “bai baina ez” jarreraraino. Azken finean, ez da edozein Legebiltzarretan ohikoan dagoena baino antzerki gehiago edo gutxiago. Espainiako Auzitegi Nazionala, adibidez, ez dago antzerkitarako eta horregatik deitu ditu deklaratzera NEBko kideak. Urkullu lehendakaria eta Jonan Fernandez ere antzerki gutxitarako egongo ziren iragan igande goizean egiaztatzailei beren sostengua eskaintzera Madrilerako joan zirenean. Zeresanik ez egiaztatzaileak. Akaso

Akaso gertaera film baten gisan ikusten ari denari 40 urteko kartzela zigorrak ez dio gauza handirik esaten, baina seguru armak indargabetzeko lanetan ari direnei baietz

gertaera filma baten gisan ikusten ari denari 40 urteko kartzela zigorrak ez dio gauza handirik esaten, baina seguru armak indargabetzeko lanetan ari direnei baietz.

Hori da egiaztatzaileek azaldu dutena, balore handia ematen diotela ETA egiten ari denari, horrelako armagabetzea Espainia eta Frantziaren oniritzirik gabe egitea gaitza delako eta atxilotzeko arriskua handia delako. Egiaz-

tatzaileen esanetan, gainera, ez dago argi modu horretan ETAk askoz arma gehiago desegin ahal izango duen. Horra oztopo bat gehiago, beraz, prozesu hau urtebeteko epean behar bezala gauza dadin.

Espainia eta Euskal Herriko hainbat esparrutan ez bezala, munduko hedabide eta pertsona askok urrats esanguratsutzat jo du ETAREN. ETAk bere jardura armatuaren amaiera iragarri zuenetik ez da halako jarraipen mediatiko handirik izan atzerrian: *The Wall Street Journal*, *Time*, *The Guardian*, *New York Times*, *Le*



BBCK zabalduetako bideoan ETako bi kide ageri dira egiaztatzaileei zigilatutako armak erakusten.

Monde, eta beste medio garrantzitsu askok eman diote oihartzuna. Bill Clinton AEBetako lehendakari ohiak ere oniritzia eman dio Twitterreko bere kontutik.

Arma gutxi, ilusio handia

Desegindako armak gutxi dira, ez da zalantzarik. Areago, duela urte asko beharko zuketena isilik arma horiek. ETak urrezko bi aukera galdu zituen XXI. mendeko lehen hamarkadan, lehen Lizarrri-Garaziko Akordioaren ondoren eta bigarrena 2006ko Loiolako elkarrizketak eta gero. Ahultasun handiz iritsi zen bide armatuaren amaieraren iragarpenera eta orain, negoziazio teknikoaren unean, larrutik ari da ordaintzen hainbeste berandutu izana. Inoiz ez zen izango samurra elkarrizketa tekniko hori, baina ETak eskura izan du hainbatean eta tartean negoziazio politikorik ez zegoez, arbuiatu izan du. Orain egoera are gaitzagoa da eta ETA *nahi eta ezin* zentzugabe-ko horretan harrapatua da.

Eta hala ere, asko kontrakoa saltzen saiatzen ari badira ere, gizarteko esparru zabaletan ilusioz bizi da bakearen esperantza, urtarillaren 11n Bilbon argi ikusi zen moduan. Ilusio horrek ez du ez motibazio bera, ezta aurrera begirako herri ikusmolde adosturik, baina ohartzen da herri honetan asko sufritu dela eta horrek behar duela, lehenik eta behin, ETaren amaiera ordenatu bat eta, ondoren, elkarrizketa prozesu zabal bat.

Funtsezkoa da elkarrizketari serio heltzea, bestela ezinezkoa baita biktimak, memoria eta

elkarbizitzaren gaiak behar diren sakontasunez jorratzea, are gutxiago behar duten eraginkortasunez. Munduko beste leku askotako esperientziek erakusten dutenez, dena ondo bideratuta ere aski gai gaitzak dira eta, borondate txarretik ez bada, nekez uler daiteke bake prozesua ondo atera dadin ahalik eta sendoen ez jardutea, areago hori txukun egitea funtsezkoa denean etorkizuneko elkarbizitza antolatzeke. Uler daiteke prozesu horretan muturreko interesak izatea eta bakoitzak bere ikuspegia erakutsi eta defenditzea, ezin dena ulertu da prozesuari berari muzin egitea edota boikota egitea. Hori bakarrik egin dezake uste duenak ETA dela hemen arazo bakarra eta behin honek bere jardura armatua utziz gero ez dagoela beste inolako arazorik. Zauria ondo itxi barik aurrera egiteak dituen arriskuez jabetzen ez denak bakarrik egin dezake halakorik. Edo garaile eta garaituen eskeman ari denak.

Egia da herritarren oso sektore zabaletan hau ez dela lehentasunezko arazoa, azken bi urtetakoak ez duela zerikusirik beste bake aukera batzuetan gizartean sumatu izan den ilusioarekin, baina horrek ez du esan gura arazo hau ondo bukatzea ez duenik nahi. Gizartean bada bakerako lehengairik eta agintari eta aktore politiko guztiei dagokie prozesu hori behar beste elikatzea, ahalik eta emankorren izan dadin. Nola ote da samurragoa ezker abertzaleak iraganaren bere irakurketa kritikoa egitea, elkarrizketa eta eztabaida bidez, edo bere baitan katigatua? Eta biktimen beharrak asetzeko egokiena ote da Coviteren posizioa?

Desarmearen aurreko pausoak

2011KO URTARRILAREN 10EAN “nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra” iragarri zuen ETAk. Aurretik, Bruselan, gatazken konponbidean adituak diren hainbat pertsona esanguratsuk “benetan egiaztatzeko moduko” su-etena eman zezala eskatu zioten. Espainiako Gobernuaren erantzuna hau izan zen, Rubalcaba ministroaren ahotik: “Estatu demokratiko batean, egiaztatzen dutenak segurtasun indarrak dira”.

2011ko iraila: Egiaztatze Batzordea abian

2011ko irailaren 28an, Brian Currin abokatu hegoafrikarrak sustaturik, ETAre su-etena egiaztatzeko nazioarteko batzordea (NEB) osatu zen, Ram Manikkalingam Sri Lankako gatazkan aditua buru zuela. Aste gutxira, 2011ko urriaren 20an, ETAk borroka armatua utzio ziola zioen komunikatu historikoa irakurri zuen.

2012ko urtarrila-maiatza: su-etena egiaztatuta

Euskal Herrira egindako bidaietan NEBk hainbat eragileren eskutik ziurtatu ahal izan zuen ETAk “hilketak, atentatuak, mehatxuak eta estortsioak” egiteari utzi ziola. Era berean, azaldu zuen ETA prest zegoela Espainiako eta Frantziako gobernuekin desarmearaz hitz egiteko. Ordurako PPren esku zegoen Espainiako Gobernuaren erantzuna hau izan zen: “Gobernuak ez du egiaztatzailek behar ETA desegiten dela konprobatzeko”.

2013ko otsaila: Osloko mahaia deseginda

2013ko martxoaren 5ean Norvegiak ETAk hainbat kide kaporatu zituen. Oslon elkarrizketarako azpiegitura zegoen antolatuta eta egiaztatzaileak bertan izan ziren. ETAk geroago salatu zuen Espainiako inteligentzia zerbitzuek zuzenean eraso eta sabotatu zutela mahaia. Aldi berean, gogorarazi zuen desarmearen gaia ez zegoela egiaztatzaileen esku.

Egun batzuk lehenago, Parisen epaitzen ari zirela, Garikoitz Aspiazuk komunikatua irakurri zuen ETAre

izenean. Armagabetzeaz hitz egiteko prest zeudela berretsi zuen eta Frantziako Gobernuari “konponbidean murgiltzeko” eskatu zion: “Gure konpromisoa benetakoa da, ez dago amarrurik”.

Bestalde, NEBeko kideak Bilbon izan ziren 2013ko otsaileko egun nahasi horietan. Kezka azaldu zuten urrats gehiagorik ez zelako eman: “Trailean gure lana berraztertuko dugu eta ez bagara baliagarri prozesua indartzeko, ez dugu jarraituko”, esan zuen Manikkalingamek. Hainbat hedabide espainolek zabaldu zuten egiaztatzaileek sei hilabeteko ultimatumak eman ziotela ETAre desarmatzen hasteko.

2013ko apirila: egiaztatzaileen rol aldaketa

Joan den asteko agerraldian jakinarazi zutenez, ETAk desarmea egiaztatzeko eskatu zien NEBko kideei 2013ko apirilean. Haiek zeregina onartu zuten. Urte bereko irailean erakunde armatua lehen pausoa emateko prest azaldu zen. Ordurako, Eusko Jaurlaritzak desarmean izan zezakeen zereginaz hitz egiten zen. Estefanía Beltrán de Heredia Segurtasun sailburuaren esanetan Ertzaintza “erabat prestaturik” zegoen halako zeregin baterako. Urtea amaitzerako desarmerako zurrumurru eta eskariak ugaritu ziren; Sortuk ere “beharrezkotzat” jo zuen desarmea, bakerantz egiteko.

2014ko urtarrila: desarmearen lehen urratsa

Manikkalingamek eta Kasrilsik Okzitaniako Tolosako toki ezezagun batean egiaztatu zuten ETAk arma kopuru jakin bat zigilatu zuela. 2014ko otsailaren 21ean NEBk publiko egin zuen desarmearen lehen urratsa eta BBKk une hartako bideoa argitaratu zuen.

Covite biktimen elkarteak eta fiskaltzak eskatuta, Auzitegi Nazionalako Ismael Moreno epaileak lekuko gisa deklaratzera deitu zituen NEBko kideak. PPko buruzagi González Pons-ek honakoa esan zuen: “Egiaztatzaileek ETArentzat egiten dute lan”.

Urko Apaolaza Avila

Nola azaleratuko da hobeto argitu gabeko hainbat hilketaren informazioa, dakienak informazioa eskainita edo polizia-ikerketetatik?

Espetxeetako bake frontea

Armena sinbolikoki oso gai ikusgarria den moduan, presoen esparrua alor praktikoan da giltzarri aurrera egiteko, oraindik orain presoek eta beren senideek egoera hori beren larrutan sufritzen dutelako. EPPK-k dagoneko iragarri du Zaballara ekartzeko eskaerak banan-banan bideratuko dituztela presoek. Espainiako Gobernuak, aldiz, orain arte behintzat argi adierazi du ETA desegin arte ez duela espetxe politika aldatuko. Argi da ez dela samurra izango, baina espetxeetako

borroka frontea, bake fronte bat gehiago bilakatzea da kontua eta horretarako bakoitza bere giltzak erabili behar ditu, jakinik espetxeetako giltza nagusia Espainiako Gobernuaren esku dagoela. Poliki bada ere, bideak eta minak arintzea da kontua, ez areagotzea, Espainiako Gobernuak atxilotekin etengabe egiten duen gisan. Azken hiruzpatalu urteetan argi ikusi den moduan, Euskal Herrian bederen, bake klabea jardun dutenek emaitza onak izan dituzte eta epe ertainera begira ere hala izango da, esanak esan, azkenean euskal gizarteak bakerako ahalegina eskertu egiten duelako eta kontrakoa zigortu. ■



Marian Beitialarrangoitia: «Dena ezin da aldebakartasunez egin»

| URKO APAOLAZA |

ETAren pausoak politikoki zer balio du?

Mugarri bat jarri du. ETAk su etena iragarri zuenean hasi zen lanean egiaztatze taldea, su etena egiaztatze-ko. Aldiz, orain beste egiteko bat hartu dute. ETAk erakutsi du borondatea baduela armategiak zigilatze-ko eta hori egikaritzeko lana bere gain hartu dezala eskatu dio talde horri, ikusita Parisko eta bereziki Madrilgo gobernuek duten jarrera. Horregatik du garrantzia, ETAk oztopo guztien gainetik urratsak ematen segitzeko borondatea adierazten duelako, eta ez arrisku gutxi hartuta, egiaztatzaileek adierazi duten moduan.

Batzordeko kideek onartu dute aurreantzean zaila izango dela desarmatzea egiaztatzea gobernuen inplikazio-rik gabe.

Honek ageriago uzten du gobernua-
ren jarrerak ez duela zentzurik eta

oztopoak jartzen ari den bakar-
bera dela. Bere itsukeria justifikatu
nahian argumentuak aldatzen joan
da. Lehenengo zen ETAk utzi behar
zuela, gero zen desarmatu egin behar
zela... Ba hemen dago desarmatzeko
borondatearen benetako erakusle
bat. Egiaztatzaileek esandako datu
bat adierazgarria da: munduan ez da
inoiz horrelakorik gertatu aldebakar-
tasunez. Horrek dituen abantailak
dira adierazten duela baldintzarik
gabe ari zarela eta konbentzimenduz
ari zarela.

Urratsez urrats oraindik ageriago
geratzen ari da bake eta konponbide-
rako benetako aukera baten aurrean
gaudela eta ezin dela pasatzen utzi.
Baina Madrilgo Gobernuaren parte-
hartzea beharrezkoa da, dena ezin da
aldebakartasunetik egin.

**Hainbeste urratsekin jendartea nazka-
tzeko arriskurik bada?**

Noski, denok ere nahiago genuke

urrats gutxiago eta horiek denbora
laburragoan ematea. Jendarteak, uste
duena baino giltza garrantzitsuagoa
dauka hori posible izateko: Estatua
mugituko bada, neurri handi batean
jendeak hori eskatzen diolako izango
da. Beraz, Ram Manikkalingamek
esan zituen bi hitzekin geratuko nin-
tzateke: prozesua sinesgarria eta
esanguratsua dela.

**Nola ikusten duzu Iñigo Urkullu lehen-
dakariaren papera?**

Esan zuen pausoa aldebakarrekoa,
baldintzarik gabea, fidagarria eta ziu-
rra dela. Hori inportantea da. Egiaz-
tatzaileak presio eta irain askoren
pean ari dira lanean, eta haiek eta
prozesuak ere babes instituzionala
behar dute. Gainera Urkulluk esan
zuen babesa ematen jarraituko duela.
Urkulluk badu lidergo paper bat
hemen, ez soilik begiralearena. Espe-
ro dut hitz horien atzean konpromi-
sorako ahalegin bat egotea. ■

Sentipen kontrajarriak

60KO HAMARKADA aldera izan nuen Espainiako Poli-
zien berri. Hamazazpi urte nituen kuadrillako bi lagun
atxilotu, egurtu eta bi egunera inongo akusaziorik gabe
libre utzi zituztenean. Ordurako, jada deseuskaldundua
nintzen, hiritarra izan nahi nuen, mundu moderno
estandarreko biztanle. Eta euskarak baztertzeko nin-
duen, ni ez nintzen baserritarra. Atxiloteta hark barre-
na mugitu zidan. Manzanas izeneko komisarioaren
berri ere orduan izan nuen, bi lagunak ostiatu zituen
zen bera hain zuzen. Egoera haren oinarria ezagutzea
bilakatu zitzaidan obsesio. Belarri onekoa, politikan aur-
kitu nuen mundu berri bat, ezkutukoa, arriskugarria.
Inguru hurbilean joan nintzen ezagutzen zenbait jende-
ren mundutxo konspiratzaileak, ezkutuan zeramatena,
fidagaitza. Erakarri ninduen eta pixkanaka nire egin
nuen. Lehentasuna hartu zuen, eta ordura arteko zaleta-
sunak giblean uzten hasi nintzen. Euskara, berdintasun-
en oinarritutako gizarite berria, Euskal Herria.

Hori guztia gauzatu nahi izanak ETAraren eraman, eta
koartelilloan eta komisaldegian bukatu nuen. Bertan
ikasi nuen tortura ez zela filmetako elementu dramati-
koa, tortura gure inguruan bizi ziren polizia batzuen
ohiko jarduna zen. Gure auzoan bizi ziren, haien seme

alabak gure artean zebiltzan. Kartzelan hartu nuen
determinazioa, neure bizia burkideekin batera aipatu
hiru helburu horiek lortzeko zuzenduko nituen moto-
rrak eta ibilgailua. Beste guztia, horren peko. Lauro-
geiko hamarkadan hasi nintzen borroka armatua dese-
gokitatzat jotzen. Inertziak inertzia, ez nion etekinik
aurkitzen eta sozialki ahultzen gintuela baieztatzen
hasi nintzen, inguruko zenbait lagun eta lagun-minen
desadostasun mingarriak minbizi.

ETAk ekintza armatuak alboratu zituen zituela iragar-
tzeak poztu ninduen, Aljerreko porrotak eragin zidan
frustrazioa arinduz. Lagunak dauzkatzat kartzelan eta
erbestetan. Emozionalki gaizki daramat aldebakarreko
prozesu hau, lagunak bukatuak gehiago arduratzen nau
erakundearenak baino. Politikoki erakundeak duinki
bukatu duela ez dut dudarik, eta bere jendearen alde
ahal duen guztia egingen duela badakit. Baina nik ez
bezala, bere bizitza osoa honetan eman duen gehiegi
ezagutzen dut, holako bukaera inoiz gertatuko ez zenik
sinetsita dena inbertitu duen lagun sobera dut, politiko
profesionalen jardueratik at gure laguntza partikularra
beharko duten horiek dute nire barrena okupatzen.
Sentipen kontrajarrietan bizi dut hau. Burua eta barre-
na bi eginda. ■

Joxe Mari Ostolaza



**Emilio
Lopez
Adan
"Beltza"**



Xake-matea taulak ematen du

PARTIDA honetan pieza baten lagatzeak ez dio arerioari gupidarik sortzen: ongi posizionatua dago, abantailak baditu eta garaipen osoa baizik ez du nahi. Atzo, biolentzia politikoa baztertu behar zen, egun, armak utzi, bihar, damua eta haren froga, salaketa; etzi, lege demokratikoen aginpidea onartu eta hobendun guztiak kartzelara. Orduan bai, garaipen polizialkoaren ondoan arrakasta moral eta ideologikoa bermatu eta gero, Estatu demokratikoaren esku-zabaltasunaren garaia helduko da. Baina biktimen sendatzeko mendekua beharrezkoa omen da eta munstro terroristen jendarteratzea, ezina; esku-zabaltasunaren muga estua izanen da, behar bada salatari sutsuenen pena laburpen bat.

Oraingo urratsa ez da behin-betiko armagabetzea, hain segur ETAk zerbait atxiki nahi du etorriko den Gobernu sozialistarekin negoziatzeko. Urrats guztiak zentzu berean ari dira, eta borroka armatuaren garaia bukatzeko borondatea ezin dudan ezarri. Gero, aldebakartasunean bada hauteskunde erreklama politikoa zerbait eta fruituak emanen ditu. Esparru demokratikoa onartzean bada desmasiak agertzeko parada eta Parot doktrinaren salaketak presoak askatzeko balio izan du. Beude lorpen horiek eta heda daitezten.

Alta, preso politikoa ez dira soilik eskubideak dituzten biktimak. Anitz, borroka armatua aukeratu duten militanteak dira. Eta hor dator gakoa: gure garaietako oinarritzko arazoa biolentzia iraultzailearen zilegitasuna dela. Estatuek eta klase nagusiek argi eta garbi utzi nahi dute inongo garaietan, inongo baldintzetan, boterearen aurka ezin daitekeela bortizkeria erabili. ETAk eta ETaren

ingurukoek doktrina hori onartuko balute, erabateko garaipena izanen zen Estatu eta klase nagusientzat.

Gure arteko batzuek ETaren tematzeta salatu genuen, baina inoiz ez biolentzia askatzailearen zilegitasuna arbuiaitzeko. ETAk biolentziaren garaia luzatzeko egin zuen huts estrategikoa desegokia

zen eta errepresioan inplikatu gabeko biktimen inguruan sortu haustura etikoak makur handiak eragin zizkigun; baina zapalkuntzaren aurka armak hartzeko askok izan zuten ausardia, gure herriaren eta humanitate osoaren hautu estrategikoa eta etiko oharagarrien artean ikusten genuen. Zulotik

atera behar zen, estrategia armatu kaltegarria gaingitu, baina ez zanpatzaileen diskurtsoa onartzeko.

Beraz, ez dut armak uzteko erabakia kritikatu eta ETak eramaten duen urrats ttipien estrategian ez naiz sartuko. Ziklo armatuari bukaera eman behar zitzaion, ETaren gain zegoen erabakia, hartu egin du eta militante politikoen nonbaiteko ezagutzarekin lotu nahi du, den mendrena izanik ere. Baina aukera armatuan ziren balore iraultzaile (eta humanista!) guztiak gogoratzeko ikerketa, kontakizun eta ulertze lanetan jarraitzeko beharra azpimarratu nahi nuke, gaurko pentsaera kritikoa mantentzeko haien beharra dugulako eta, bihar, erabilpen estrategikoa ere izan dezaketelako.

Zeren historia ez baitzen Francis Fukuyamarekin bukatu, politika ez baita Espainiako Konstituzioaren mugen barnean gertatzen eta egunean-egunean murrizagoak diren askatasun alorrak zabaltzeko Estatuari gerla badago, bakean utzi arte. ■

*Hor dator gakoa: gure
garaietako oinarritzko
arazoa biolentzia
iraultzailearen
zilegitasuna dela*

Garbiñe Biurrun: «ETA desagertzeaz da zatiketarik, oinordekorik gabe»

| MIKEL ASURMENDI |

Nola baloratzen duzu otsailaren 21eko egiaztatzaileen ekitaldia?

Egun historikoa izan da. Egiaztatzaile horiek nortzuk diren eta zer ibilbide izan duten ezagututa, argi dago ekitaldiak benetako garrantzia zuela. Gainera, aditu horien jarduerak berme berezia eman dio ETAre azken erabakiei. Ekitaldi “ofiziala” eta gero, Batzordea Euskal Herriko hainbat eragile politiko eta sozialekin bildu zen, azalpen gehiago emanez. Oso adierazgarria izan zen bilera, gizarte honek etorkizunerako daukan premia ezagututa. Beraz, ekitaldi historikoa, etorkizun baketsuaren bermea berresten diguna.

Desarmatze prozesuaz zer azpimarrituko zenuke?

A) ETAr eragile sozial eta politiko

askotatik –Foro Soziala barne– eskatu zaio desegite eta desarmatze prozesu bat garatzea eta bururaino eramatea. B) Prozesu horrek, adituek diotenez, kontrolatua, ordenatua eta adostua behar du izan. C) Prozesu hori zentzuzko denbora tarte batean gauzatu beharko litzateke eta erakunde independenteen parte-hartzea eta laguntza derrigorrezkotzat jotzen da.

Kontuan hartu behar da lehen aldiz ETA desagertzeaz dela, oinordekorik, zatiketarik gabe.

Bestalde, oso positiboa da Egiaztatzaileen Batzordeak ziurtatzen digula ETA tinko mantentzen dela bere erabakian eta bere egiturak desegiteko pausoak ematen hasi dela. Beraz, esan genezake ETAre amaieraren lehen urratsa dela. Espero dezagun laster hurrengoak ezagutzeari.

Garrantzi berebizikoa duen beste puntu bat zer da, aldebakarreko pau-

soa izan dela. Hau da: ETA desarmatzen hasi da inolako baldintzarik gabe, inolako negoziatzaile gabe, Espainiako Gobernutik oztupoak bakarrik jasotzen ari den arren. Egiaztatzaileek esan dutenaren arabera datu hau oso bitxia da eta, beraiek ezagutzen dutenez, kasu bakarra nazioartean.

Nola baloratzen duzu Eusko Jaurlaritzaren eta lehendakaria jokatzeko ari diren rola?

Eusko Jaurlaritzak, lehendakaria buru, Egiaztatzaileen lanarekiko hartu duen jarrera ausarta eta leiala izan da: ausarta, presioak jasango zituela bazeki-lako; leiala, gizarte honi zor dion lanari ekin diolako arlo honetan ere. Ezinbestekoa den babesa eman die Egiaztatzaileei eta prozesuari. Euskal gizarteari derrigorrezkoa den lidergoa badagoela esan zaio portaera honekin. ■

**“AUZO ETA HERRIAK
DONOSTIA INDARTZEN”**
Aurrekontu parte-hartzaileak

1. FASEA

**2012an egindako
proposamenen egoera**

Bilerak non?

- **Martxoak 3, Añorga.** Antxon Ayestaran K. E.
- **Martxoak 4, Martutene.** Gaztelekua
- **Martxoak 5, Txomin-enea.** Kultur Etxea-Haur Txoko
- **Martxoak 6, Altza.** Casares-Tomasene K.E.

Aurkezpen guztiak 19:00etan izango dira.

**Herri
Partaidetza
Saila**
Donostiako Udala

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

auzoetaherriak.donostia.org

[@DSS_Partaidetza](https://twitter.com/DSS_Partaidetza)

«Osasunagatik nabil ni korrika, ez dago beste misteriorik»

Gipuzkoako korrikalaririk beteranoenetakoa da. 1978tik hona ez da korrika geratu. Jokin Sarasolaren historiak, ordea, hainbat ertz ditu: *Lotsati* poetaren historia, abertzaletasuna, familia, Espainiako Gerra Zibila, euskara...

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco

Juan Iñaki, Gurutz, Andoni, Eurne, Terese, Imanol, Kelmen, Arantza, Jokin... Izenek dute ageri: abertzalea, arandarra zen zuen familia.

Euskarazkoak ditugu izenak, bai bataioan, bai erregistroan. Anaia zaharrena Juan Iñaki da, aitona Juan Martin zelako. Gainerako guztiok euskarazko izenak ditugu. Ama genuen abertzalea, Paula Martinez. Itsasondon jaioa zen, baina gurasoak Donostiara etorri ziren eta hemen bizi zen, Narrika kalean. Oso abertzalea zen, eta propaganda egiten zuen emakumeek beren umeei euskarazko izenak jartzeko. Aita, berriz, tipo karlista zen, baina EAJko alkate izan zen Itsasondon gerra aurretik. Gerra ondoren kartzelara sartu zuten, isuna jarri zioten... Bederatzi anai-arreba ginen eta, 1940an, ama hil zenean, barnetegira bidali ninduen aitak, Lekaroz. 12 urte nituen nik orduan. Behin, lau anaia atanotarrak erakustaldia egitera joan ziren. Hala ere, han futbola zen nagusi, ez pilota. Atano II.a, III.a, IV.a eta VII.a izango ziren, nonbait. Haiek erakustaldia egiten eta kolegioko estudiantek, ia denak, futboleant ari ziren jolasean. Pilota ikusten, berriz, bi katu. Atanotarrak ere konturatu ziren: "Gu, hemen, munduko onenak, eta estudiantek futboleant!". Atano III.ak Lekarozen sartu nahi zuen bere semea, baina giro hura ikusi zuenean, Oronozen sartu zuen.

Ornoz-Mugairin ikasi zenuen zeuk ere.

Lehenengo ikasketak egin eta Komertzio ikasten hasi nintzen Lekarozen bertan, baina ikasketa haiek Lekarozen kendu eta Oronoz-Mugairin jarri zituzten, eta hara joan nintzen. Hantxe ibili nintzen, Atano III.aren semearekin pilotan. Oso gazterik hil zen seme hura, 32-33 urterekin. Baina hura ez zen pilotaria... Oronozko kolegioan bazen fraide bat, Segundo anaia, Berrizkoa, pilotazalea. Pilotaren Eguna ospatzen zen, eta pilotari denak pasatu ziren handik. Denak, Dionisio Onaindia izan

NORTASUN AGIRIA

Jokin Sarasola (Itsasondo, 1929) Gipuzkoako korrikalaririk zailduenetakoa da. Bere adineko askorik ez da gure bazterretan lasterka dabilenik. Peritu eta Maisutza ikasi zituen Donostian, eta Intendente ikasketak egin zituen Bilbon. Arbel fabrika zuten etxean, eta hantxe egin zuen lan 1970ean itxi zen arte. Harrezkero, arbel salmentan jardun zuen, erretiratu arte. Kirolari da betidanik (pilotari, aizkolari, mendizale...), eta korrikari lotu zitzaion 1978an, Donostiako lehenengo maratoiaren garaian. Korrikalari ibili da hemen eta munduan. 2009an Atletismoko Master Txapelketan maratoiaren parte hartu zuen Finlandian –bigarren egin zuen, deshidrataturik ibili ondoren–, eta hurrengo urtekoari begira jarrita dago. Anaia zuen Gurutz Sarasola *Lotsati* poeta, bere burua trenari eman zion idazle gaztea.





Iñaki Perurena

“Leitzan korrika, herri lasterketan, eta Iñaki Perurena! Erabat flakatuta, 105 kilo izango zituen orduan. Pasatu egin nuen aurrerago, eta esan zidaten: ‘Hi, Perurena daramak hor atzean!’. Begiratu nuen, eta hantxe Perurena. Azkartu egin nuen eta bera baino lehenago ailegatu nintzen, lau-bost metro. ‘Juxtu-juxtu irabazi haut!’ esan nion, eta berak: ‘Zenbat urte dituk?’, eta nik, orduan, 73 izango nituen. Berak, berriz, nik baino 30 gutxiago!”.

ezik, gernikarra. Profesionalen arteko erakustaldia egiten zen gure kolegioan. Migel Gallastegi-eta. Elizondon jokatzan zuen, eta kolegiara etortzen zen igual. Kolegioko hiru estudianteren kontra ere jokatu zuen Gallastegik, pilota gozoarekin. Oraingo pilota gogorra atera izan balu, akabo!, estudiantek ez zuten ikusi ere egingo! Grosen ikusita nago, garai bateko frontoian, Munduko Txapelketa. Frantzia Espainiaren kontra omen zen. Frantzia zen Aranbillet, eta Espainia, Atano III.a! Francoren garaiak ziren. Nork bere pilotak jarri zituen. Arinak Aranbillet, eta astunagoak Atanok. Sakea libre zen orduan, eta min handia egin zion saketik Atanok. Piloteoan ere gehiago zen. Aranbillet, berriz, boleaz defendatzen zen ondoena...

Pilotaz hasi zatzaizkit, baina korrikalari zara zu.

Korrikalari izan baino lehenago, pilotari izan naiz ni. Egunero-egunero egiten nuen eskuz, Amarako frontoian. Gazteak gomazko pilotarekin jokatzera joaten ziren, eta, batzuetan, zain zeudela, esaten nien: “Nahi duzue bitartean eskuz jokatu?”, eta hasten ginen. Erraz irabazten nien. Nik baino sasoi askoz hobea zuten, baina ez zekiten eskuz. Errondo gainera ere joaten nintzen, San Juan de Dios klinika atzeko frontoira. Hartu eskuzko pilota, erraketa, pala... irten galtza motzetan etxetik eta harantz!

Nola hasi zinen, hortaz, korrika?

Esango dizut nola hasi nintzen korrika... Leihotik begira nengoen, eta jendea ikusi nuen, korrika. 1978 zen. Edadeko jendea ere bai, korrika! Eta galdetu egin nuen: “Zer arrairo pasatzen da hemen, jende guztia korrika?”. Eta esan zidaten: “Maratoirako ari dituk entrenatzen”. Maratoia? “Nik ere egingo diat hori!”. Fisikoki ondo nengoen, mendira joaten nintzen, pilotan egiten nuen, eta hau eta hura. Buelbaka hasi nintzen Donostian, Burdinazko zubira joan eta Urumean gora. Baina hain gaizki entrenatzen nintzen, laster nintzen hankak kargatuta. Eta utzi egin nuen Donostiako lehenengo maratoi hura egiteko asmoa. Otsailean, berriz, Azpeitiko maratoi txikia etorri zen. Pikua taberna zen antolatzaileetan. Han debutatu nuen. Belen Azpeitia zena ere han zen, korrika. Ni korrika, eta aditzen nuen: “Aupa, Belen!”, “Belenen ondoan noak, ez noak gaizki!”... Gero, Donostiako bigarren maratoian debutatu nuen berriz. 3:40 egin nuen, uste dut. Hurrengoan, denbora jaitsi nuen: hiru ordu eta erdi. Beti ibili naiz denbora jaisten. Nahiz eta zaharragoa izan, esperientzia handiagoa nuen. Hiru maratoi egin nituen segidan, eta utzi egin nion gero. Harrezkero, herri lasterketak egin ditut. Ia igandero zen orduan...

Oraindik orain *Berria* egunkariaren aldekoa egin duzu Donostian.

Bai, horixe azkena. Eta datorren urtean, berriz, Lyona joateko ideia daukat, Munduko Txapelketara. Oraingoz, korrika eta gimnasia egiten ari naiz, egunero. Osasunagatik ari naiz korrika, pilota, mendia... Osasungarria da. Dena dela, orain dela urtebete erabat makalduta ibili nintzen, hamar kilo flakatu nuen, batean! Errekuperatu ere bai, poliki-poliki. Larririk ez zidaten bilatu, behintzat, eta aurrera. Naturista naiz, ovo-lakto-bejetarianoa: esnekiak, arrautzak eta barazkiak. Arrainik eta haragirik ez dago nire dietan, nahiz eta noizean behin jaten dudana. Akabo, bada!

Etxe honetako leihotik begira ikusi zenuen, noizbait, jendea korrika, eta lasterka hasi zinen zu ere...

Bai.

Etxe honek badu historia, bertan bizi izan zen jendeak...


Aitzol bizi zen hemen, bere arreba Zoilarekin. Gerra aurreko kontuak, ni umea. 8 urte nituen gerra hasi zenean. Gogoratzen naiz sotana bat bazela. Apaiza, Aitzol! Gure anaia Gurutzek, *Lotsatik*, erlazio handia zuen Aitzolekin. Gurutz poeta zen, eta askotan joaten zen Aitzolengana. Gainera, Poxpolinak taldeko arduraduna zen Aitzol, Kursaa-len, eta hara joaten nintzen ni, dantza ikastera. Aberri egun bat izan zela ere gogoratzen naiz, eta nola desfilatu genuen Atotxaraino... Hemengo giroa erabat erdalduna zen. Orain ere bai, baina tira. Bi lagun ziren, bata zen Arriaga, bestea Mas. Arriaga, erdalduna; Mas, euskalduna. Mas horri "*el vasco*" esaten genion, euskaraz zekielako. Hortik atera kontuak hemengo giroa orduan!

Zuenean euskaldunak zineten denak.

Itsasondotik etorriak. 4 urte arte nik ez nuen batere gaztelaniaz jakin. Imanol anaia eta

Ovo-lakto-begetarianoa

"Karrera nudista bat korritu nuen Sopelan, Barinetxeko hondartza basatian. Han zen Luis Elberdin sexologo famatua ere. Eta esan zuen: 'Partehartzaileetan, Jokin Sarasola donostiarrak izan dugu. Poz ematen du halako jendeak, adin horretan korrika'. Handik, Mundakatik pasatu nintzen, amuko txipiroiak jatera. Amukoak! Casinora bidali ninduten, toki dotorera. Ovo-lakto-begetarianoa naiz, baina txipiroiak, tak!".



biok ikastolara joan ginen Etxaide kalera. Errepublika garaia zen. Ez dakit ikastola zen, ala haurtzaindegia, baina hantxe izan ginen biok 4 urte arte. Gero, Jesusen Bihotza ikastetxera sartu gintuzten, Sanchez Toca kalean. Errepublika garaia zen artean. Gure ama Mujika zuzendariari joan zitzaion: "Ez duzue euskaraz erakusten?", eta besteak ezetz. Baina etxe ondoan zenez kolegio hura... eta euskara galdu nuen. Dena erdaraz. Bi anaia nituen Madrilen, Meategi ingeniarietza ikasten, eta etxean dena hitz egiten zen erdaraz. Baina Euskaltzaindiko bilerak ere ez al ziren, bada,



blogetan!

EUSKAL BLOGAREN TOPAKETA
Martxoaren 6an 17:00etan Bilboko Euskararen Etxean

- Blogen ikuspegi teorikoa: **Gorka Palazio (@palazio)**
- Euskarazko 4 blog arrakastatsuren egileak
- Blogak marketing ikuspegitik: **Lucas Aisa (@calvoconbarba)**
- Mahai-inguruan: **Blogen errealitate berria eta euskara.**
- Sari banaketa

Antolatzailea



info gehiago www.blogetan.com/jardunaldiak

Laguntzailea



AZKEN HITZA

Zeruko Argia

“ARGIA baino lehen, *Zeruko Argia* ezagutu nuen nik. Gure aita zenak etxean jasotzen zuen aldizkaria. Kaputxinoak ziren. *Zeruko Argia* eta *Arantzazu* jasotzen ziren gure etxean. Baina, behin, etorri zitzaidan Arantzazuko fraidea eta esan nion: ‘Gaztelania sartzen hasi zarete, eta lehenago ere badira hemen gaztelaniaz ari direnak. Izena eman dut ARGIAN’. ‘Baina horiek ez dute sinesten!’ esan zidan. Kar, kar, kar...”

erdaraz egiten garai hartan? Erdaraz zen dena! Eta Donostian eta Bilbon ikasketak egin eta Itsasondora itzuli nintzenean lanera, etxean erdaraz egiten zen. Kanpokoren bat etortzen zenean, harexekin euskaraz! Horixe bera kontatzen zuen Txillardegik. Haien etxean erdaraz egiten zela, baserritararekin beste inorekin ez zuela euskaraz egiten haien aitak.

Anaia aipatu diguzu, Gurutz Sarasola, *Lotsati*. Ni baino hamabi bat urte zaharragoa zen. Gure aitak Lekaroza bidali zuen. Frantzian ere izan zen, ikasten. Nik uste berak ere ez zuela fabrikarako bokazioa. Gero, baserritar neska bat ezagutu zuen. Neska, baserritarra; gure anaia, industrialaren semea. Bi mundu... Ezin izan zen. Horrekin pixka bat nahastu egin zen gure anaia. Trenari bota zion bere burua Burdinazko zubian, gazterik, 20 urte. Ez dakit etxean zer esan zen anaiaren heriotzaz, oso umea nintzen. *El Día* egunkarian idazten zuen, poesia. Anjel Lertxundik artikulu bat idatzi zuen, esanez euskal literaturan hiru L daudela, hiru poeta, gazterik hil zirenak: Lauaxeta –fusilatu egin zuten–, Lizardi –gaixorik hil zena–, eta *Lotsati*. “Hara, *Lotsati* aipatu dik!”, nik neure buruari. *Lotsatik* ez dauka Lizardi eta Lauaxetaren kategoriarik, baina, begira, *Lotsati* aipatzen zuen Lertxundik. Ezin dut gauza askorik esan, askorik ez dakit-eta: ni umea nintzen garai hartan. Gauza batzuk gogoratzen ditut, hala ere. Gerra bukatu eta segituan, ikusita nago jendea bere burua hiltzen, trenera botatzen.

Azpeitiarrak haserre

“Kolegioan, Oronozen, hangoak eta hemengoak ziren estudianteak. Nik dena erdaraz egiten nuen. Bazen Azpeitiko jendea, eta haiek dena euskaraz egiten zuten, beti. Baita jolas-orduan ere! Eta, detaile bat!, haserretzen zirenean ere bai. Batzuk, euskaldunak, haserretu eta erdaraz hasten dira. Haiek ez, haserretuta ere euskaraz! Azpeitian zer indar duen euskarak!”.



Gogoratzen dut, gizon bat, eta nola gelditu ziren haren antiojoak... Tren geltokia gure etxetik bertara zegoen.

Donostian, Bageraren Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duzu. Baduzu zer kontaturik zuk...

Bai, programa horretan ere parte hartzen dut, bai. Horretan eta beste gauza askotan ematen dut orain eguna: lasterka pixka bat egin, gimnasia, luzapenak, aizkoran...

Aizkoran?

Hiru apustu ere egin ditut nik aizkoran. Inor ez dut ikusi aizkoran hondartzan, baina orain dela hiru-lau urte egin dut nik aizkoran hondartzan. Itsasoak ekarritako enbor pusketak moztan ibilita nago Donostiako Zurriolan, Kontxan eta Ondarretan. Baita Getarian ere. “Aizkoran egin behar baduk, joan hadi basora!”, esan izan zidaten. “Basora joan baino lehen, honek balio dik pixka bat zailtzeko!”, erantzuten nien nik. Xakean ere jokatzen dut. Lagun bat badut, asko gus-tatzen zaio xakean jokatzea. Baina irabazi egiten diot, eta haserretu egiten zait. Eta bolada darama azaldu gabe. Orain internet bidez jokatzen dut ordenagailuaren kontra. Denbora luzean aritzen naiz. Baina ezin irabazi makinari, ez da erraza. Joan den urtean osasunetik makalago ibili nintzen, baina erreku-peratu nintzen. Datorren urteko Lyongo Master Txapelketan parte hartu nahiko nuke. Esan dizut, osasunagatik nabil ni korrika, kirola osasungarria dela-ko. Ez dago beste misteriorik. ■



euskal kulturaren urtekaria

2013



- Urteko hamar gertaera esanguratsuak
- Kulturaren esparru bakoitzean jazotakoak, sailez sail
- Azken hilabeteetako adierazpenik esanguratsuenak
- Euskal kultur arloko joeren aurrerapena
- Datu eta estatistika interesgarriak
- Bukaeran, gida praktikoa, kultur jardueretako pertsona eta taldeekin harremanetan jartzeko kontaktu bideekin

ESKURA EZAZU

☎ 943 37 15 45
argia.com/denda
denda@argia.com

Ekologikoak salmenta handia ez, baina kalitatezkoa bai

Sagardo ekologikoa elaboratzen dute sagardozale batzuek, kalitatea helburu. Modu ezberdinean funtzionatzen duten horietako bi ekoizle ekarri ditugu hona: Zeraingo Oiharte sagardotegia, txotxean irekitzen dituen kupel eta guzti, eta Gizaburuagako Laneko kooperatiba, sagardoa zuzenean botilaratu eta salmentara daramana.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

FAMILIAKO BASERRIA DA OIHARTE, Zeraingo udalerrian kokatua. Aspalditik egiten dute sagardoa, baina publikoari irekitako merkatu-
ra duela lau kanpaina egin zuten salto. Sagardo konbentzionalaren ekoizpenarekin hasi ziren eta ondoren ekin zioten sagardo ekologikoa egiteari. Haritz Eguren Urrestarazu sagardozaleak azpimarratu du sagardoa ez dutela produkzio handira bideratu nahi, neurria hartu eta ahalik eta kalitate oneneko produktua sortu nahi dutela. 2013ko txotx denboraldirako egin zuten lehen sagardo ekologikoa. 3.000 litro inguru egin zituzten txotxera eta botila salmentara zuzenduta. Beren sagastietako eta Zerain inguruetakoa baserritarrei erositako fruituetatik ateratako zukuarekin egiten dute sagardoa; gehienbat Idiazabal eta Mutiloako sagarra erabiltzen

dute, baita Oñatiko zertxobait ere. Iaz saiatu ziren, gainera, kupel bakoitzean zegoen sagarra zein baserritakoa zen azaltzen: “Aitortza egin nahi izan genien sagarra saldu ziguten baserritarrei”, dio Eguren.

Aurten, baina, ezin izan dute sagardo ekologikorik egin. Zeraingo sagardozaleak adierazi du sagar gutxiko uzta izan dela 2014koa. Bazuten aukera sagar ekologikoa kanpotik ekartzekoa, Britainiatik, baina kostua ere bazeukan, eta nahiago izan dute aurtengoa horrela joan dadin utzi. Halere, berritasunik izango da: sagardoa zerbitzatzeko tapatxoaren formadun kortxoak jarriko dituzte 2014ko Oiharte sagardo botiletan. Petrategi sagardotegian hasi zuten eta Zeraingoak izango dira berrikuntza hori merkatara ateratzeko bigarrenak. Datorren urtean, Labeldun sagardoa egitekotan dira, alegia, bertako sagarrarekin eginga dela bermatzen duen ziurtagiriarekin.

Nekazal etxearekin konbinatzen dute Oiharten sagardo denboraldian irekita izaten duten upeltegia. Nekazal etxea egin zuten lehenbizi, 2000. urtean. Bospasei urteren bueltan, horren gertukoa zuten sagardoaren kultura bertaratzen ziren lagunei erakusteko ideiarekin prestatu zuten lehen jangelatxoa. Txotx garaiarekin batera otorduak ematen hasi ziren, eta pixkanaka eskaera zabaltzen hasi zitzairen. Inguruko herrietatik jendea gerturatzen zen Oihartera, eta apustu berri bat egitea erabaki zuten: publikoari begirako sagardotegia irekitzea.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) ematen die ziurtagiria produktu ekologikoa ekoizten dutenei, eta Oihartek ere badu berea. Kontrol zorrotzak pasa behar izaten dituzte: prozesu guztia neurtzen dute, sagar bilketatik hasi eta botilaratzeraino. Prezintatuta edukitzen dute kupela, eta edozein aldaketa egin

Eskaintza ekologikoa

Oiharte (telefono zenbakia: 943 50 10 13) sagardotegiaren tankeran txotx garaiari ireki eta sagardo ekologikoa duten sagardotegiak:

- Iparragirre sagardotegia (Hernani, Gipuzkoa). 943 55 03 28
- Txindurri iturri sagardotegia (Deba, Gipuzkoa). 943 19 93 89

Laneko Kooperatiba (946 84 20 26) bezala, txotx garaiari ireki gabe sagardo ekologikoa egiten duten ekoizleak:

- Borobia sagardoa (Barrundia, Araba). 943 67 43 63
- Unanue sagardoa (Azpeitia, Gipuzkoa). 943 08 08 26
- Ekain sagardoa (Zestoa, Gipuzkoa). 943 14 80 33



Ezkerreko irudian, Laneko kooperatibak botilaratzen duen sagardoa. Goian, Oiharte: nekazal etxea egin zuten lehenbizi, 2000. urtean. Bospasei urteren bueltan, lehen jangelatxoa prestatu zuten, sagardoaren kultura erakusteko asmoz.

behar badiote ENEEKi pasa behar izaten diote abisua, mugimendua ikuskatzera joateko. Gainera, sagastiek sagardo ekologikoaren ziurtagiriaren barruan erregistratuta egon behar dute, eta sagasti horietako fruituekin sagardoa egiten hasterako, zuhaiztiekin hiru urteko garbiketa edo depurazio prozesua pasa behar dute.

Sagardo ekologikoaren kooperatiba

Kooperatiba moduan funtzionatzen duen Lea-Artibaiko elkarteak da Laneko eta sagardo ekologikoa egiten dute 2001. urtetik. Orain hamasei urte, inguruko hamalau bat baserri-
tar bildu eta euren produktuak merkatura zabaltzeko bidea ireki zuten. Barazki kontserbak eta marmelada ekologikoak ekoizten hasi ziren lehendabizi, Leartibai Ondarea markapean.

Beste hainbat produkturen artean –denak ez dira ekologikoak–, duela hamahiru urte sagardo ekologikoa ekoizten hasi ziren. Kooperatibako bazkide batek sagasti ekologikoa zeukala-eta heldu zioten erronkari, eta gaur egun 2.000 eta 4.000 litro arteko produkzioa dute, Arteaga eta Munitibartik ekarritako sagarrekin. Kasu honetan, upeltegia izan badute, Gizaburuagako industrigune batean, baina ez dute produkzioa txotx garaira bideratzen; zuzenean botilaratu eta salmentarako da. Bizkaian sagardo ekologikoa egiten duen elkarte bakarra da gainera, eta ez dago sagardo ekologikoa egiten duen sagardotegirik.

ENEKEK emandako ziurtagiria dauka Laneko kooperatibaren sagardoak ere, baina kontrol moduetan badaude Oiharte bezalako

sagardotegietan egiten direnarekin aldeak. Kooperatibak ekologikoak ez diren produktuak ere lantzen ditu, eta beraz, produktu ekologikoa egitera doazen egunetan dira kontrolak, jarduera benetan ekologikoa baino ez dela ikuskatzeko.

Azoka ekologikoetan salmenta zuzena egiteaz gain, banatzaile bat ere badaukate eta produktu ekologikoen kontsumitzaile elkarrekin egiten dute lan. Sagardoa ez dute esportaziora bideratzen, kopuru txikietan mugitzen dira, diotenez sagardoa bezalako produktu ekologikoek ez dutelako eskari izugarririk, nahiz eta gero eta ezagunagoa den. Handiagoa da barazki eta fruta ekologikoaren salmenta, produktu freskoarena. Hori horrela, datorren urteari begira sagar zuku ekologikoa egiten hasteko asmoa darabilte buruan. ■



Lanpostuari eutsi ez arren, borrokak merezi izan du

Fernando Carrión Galarza dut izena, eta duela 55 urte jaio nintzen, Iruñean. 33 urtez Irurtzongo Inasa fabrikan aritu naiz lanean. Ia bi urte iraun duen borrokaren ostean, abuztuan langabezian geratu nintzen, beste 170 lankiderekin batera.



33 URTE EGIN DITUT lanean aluminioa transformatzen espezializatutako Inasa lantegian, Irurtzunen. Lanbide Heziketako bi gradu egin ostean hasi nintzen bertan, 22 urte nituela. Maiz asteburutan egin behar izaten nuen lan, eta gogorra zen familiari nahi beste denbora ezin eskaini ahal izatea, baina soldata eta baldintza duinak genituen behintzat. Gainera Irurtzunen bizi naiz, eta pozgarria zen herrian bertan lan egitea.

Baina 2011n, Hydro multinazionalak arrisku-kapital enpresa bati saldu zion lantegia, orduan ez bagenekien ere ixteko helburu bakarrarekin. Zuzendaritza berriak lanpostu asko soberan zeudela adierazi zigun, neurriak hartu beharra zegoela. Ni LABeko delegatua nintzen, eta gu ez geunden ados, baina UGT eta CCOOko delegatuen aldeko bozekin soldatak %8 jaistea onartu zen; langileon pentsio-planetatik ere dirua atera zen kaleratzeak saihesteko.

Hitzarmena iruzur hutsa izan zen. Handik gutxira Espainiako Gobernuak lan erreforma jarri zuen martxan, eta horren babespean, soldatak %40 jaitsi zizkiguten. Iruzurrari erantzuteko greba mugagabeari ekin genion orduan. Ia urte eta erdiz egon gara lantegia- ren sarreran 50 lankide inguru, gau eta egun, aldarrikapen gisa.

Bitartean, zuzendaritzak makinak saltzeko saiakeran ziharduen. Bazegoen enpresa erosi eta aurrera eramateko interesa zuen inbertsio talde bat, baina aukera hori bizirik mantentzeko ezinbestekoa zen makinak bertan gertatzea. 2013ko maiatzaren 22an egin zuten

makineria eramateko ahalegina, baina gure borrokari esker hori gertatzea lortu zen. Garaipen bezala ospatu genuen, xanpain eta guzti. Tamalez, ordea, abuztuaren 14an, Guardia Zibilaren laguntzarekin eta atxilotekak eta isunak tarteko, makina guztiak atera zituzten. Ordutik, langabezian gaude.

Dena den, nire egoera ez da horren larria beste zenbait lankide ohirenarekin alderatuta. Emazteak lan duina du, eta alaba ere lana eta ikasketak ari da uztartzen. Ni etxeko lanez arduratzen naiz, baita ama zaintzeaz ere, baina urte asko geratzen zaizkit, eta herrian negozioren bat irekitzeko aukera aztertzen ari naiz. Izan ere, 40 urtetik gorakoontzat oso zaila da lana aurkitzea.

Oraindik langabezia-prestazioa jasotzen dugu, baina laster bukatuko zaigu, irailean. Orduan hasiko da Irurtzunen eta Sakanako gainontzeko herrietan eragina zinez nabaritzen, bat baino gehiago inongo diru-sarrerarik gabe gertatuko baita. Bitartean, epaitegie- tan borrokan jarraitzen dugu pentsio planetako aldatetekin galdu genuen diru hori berreskuratu ahal izateko, baina ez dakigu zer gertatuko den.

Egia da ezin izan diogula lanpostuari eutsi, eta hala ere borrokak merezi izan du. Ez bagina saiatu, zalan- tza horrekin biziko ginatekeen, eta orain, bederen, egindakoaz harro egon gaitezke. ■



BLOGETAN! TOPAKETA

Bederatzi blogariren bizipenak

Martxoaren 6an, bederatzi blogarik euren esperientziak eta hausnarketak elkarbanatuko dituzte *Blogetan! Euskal blogariren topaketan*, Bilboko Euskararen Etxean. *Blog izarren bila* lehiaketako irabazleen sari banaketa ere egingo da.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

AZKUE FUNDAZIOAK ARGIAren laguntzarekin antolatu du *Blogetan! topaketa*. Martxoaren 6an, Bilboko Euskararen Etxean, arratsaldeko 17:00etan hasiko da ekitaldia eta bi zati izango ditu. Lehenengo, blogen inguruko hainbat hitzaldi eta mahai-ingurua izango dira, eta ondoren *Blogetan!*

Blog izarren bila lehiaketako irabazleen sari banaketa egingo da.

Jardunaldietan, Azkue Fundazioko zuzendari Iurdana Acacuso ongiatorria eman ostean, blogak ikuspegi teorikotik hasiko dira lantzen. Hortaz, Gorka Palazio EHUKo Ikusentzunezko Teknologietan katedradunak hitzaldia eskainiko du. Ondoren, blog arrakastatsuak elikatzen ari diren lau protagonistak hartuko dute hitza eta haien esperientzia lehen eskutik jasoko dugu. Hizlari ari-tuko dira Imanol Epelde (Etxepare Rap eta 27

zapata blogak), Oier Peñagarikano (Itsumustuan bloga), Amaia Nicholson eta Ibai Etxarte (Hazitegia bloga) eta Iñigo Errasti (31esku-tik.com, EIZIEren egitasmoa).

Lucas Aisak enpresa eta marketing ikuspegitik aztertuko ditu blogak. Zaragozarra

(Espainiako Estatu) marke-tingean eta online estra-tegietan aditua da, eta sarean *Calvo con Barba* ezizenez ezagunagoa. Bere blogean (calvo-conbarba.com) trebe-ziaz lantzen du *social media* gaia, alegia, herri-tarrek sarean sortutako

komunikazio plataformen mundua.

Lehiaketaren sari banaketa hasi aurretik mahai-inguruan arituko dira lau euskal blogari: Marijo Deogracias, Maite Goñi, Juanra Madariaga eta Haritz Rodriguez, Gorka Bereziartua ARGIAko kazetariak gidatuta. ■



Lehiaketako finalistak

ABENDUAZ GEROZTIK 115 blogek eman dute izena *Blogetan! Blog izarren bila* lehiaketan parte hartzeko. Publikoaren bozek erdia balio dute eta beste erdia epaimahaikideen botoek. Denek euren lanak eginda, lau kategorietako hiru blog finalistak aukeratu daude. Bosgarren saria, 2013an sortutako euskarazko blog onenak jasoko du eta martxoaren 6ko sari banaketan jakingo da zein den irabazlea.

Lau kategorietako finalistak ondo-koak dira:

Kultura kategorია

- AnnieSdelMono
- Klak... eta
- 27 zapata

Gizartea eta politika kategorია

- Euskerabili
- Auzia euskaraz
- Arma tiro klik

Aisia kategorია

- Katxonderstango Errepublika
- Tropela bloga
- Izparringia

Zientzia eta teknologia kategorია

- TeknoZientzia
- Euskalnatura
- Zientzianet



**June
Fernández**



KAZETARIA

Armairuak

OTSAILAREN 14AN Ellen Page aktorea (Juno, Hard Candy, Origen...) LGTB (Lesbiana, Gay, Bisexual, Transexual) gazteen ekitaldian hitzaldi aparta eman zuen eta, bukaeran, urduri eta hunkituta, bera ere homosexuala dela esan zuen. Etengabe ezkutatzeaz nekatuta dagoela, eta horrek sufrimendua eragin diola urteetan. Bere hitzaldia momentuan albiste bilakatu da, eta Pikarako sare sozialetan partekatzerakoan irakurritako bi erreakzioen inguruan idatzi nahi dut.

Lehenengoa (halako komentario ugari jaso ditugu): “Tamalgarria da oraindik ere sexu orientazioa albiste izatea. Espero dut urte batzuk barru ‘marrubizko izozkiak gustukoak ditut’ informazioak bezain beste oihartzun izatea”. Bigarrena (komentario isolatua, baina oso haserretu nauena): “Ameriketako Estatu Batuetan eta Europar armairutik ateratzea ez da arazoa. Irak-en egin proba”.

Oraindik ere, gizarte heterosexista honetan, heterosexuala izatea “normala” da, eta gay eta lesbianok, aldiz, egunero armairutik atera behar dugu

Ellen Pageren diskurtsoa albiste da, eta albiste garrantzitsua gainera. Sexu orientazioa ez da zaletasun pribatua, identitate eta bizimodua baizik. Heterosexuala bazara, pentsa: zure sexu orientazioa dela eta noizbait beldurra sentitu al duzu? Diskriminazio edo bazterkeriarik bizi izan al duzu? Zure bikotea aipatzeko orduan adorea behar al duzu? Azalpenik edo justifikaziorik eman behar duzu, edota “zein ondo, ni heteroekin oso tolerantia naiz” bezalako komentarioei erantzun?

Oraindik ere, gizarte heterosexista honetan, heterosexuala izatea “normala” da, eta gay eta lesbianok, aldiz, egunero armairutik atera behar dugu. Heterosexualak ez gara argitzeko beharra sentitzen dugun unero, ezinegona sentitzen dugu. Baina badirudi eskerrak eman behar ditugula, Irak-en baino askatasun handiagoa dugulako.

Emakume zarenean, badakizu edozein momentutan, gutxien espero duzunean, kalean zein lan esparruan nahiz taberna batean, jarrera edo eraso matxista bati aurre egiteko arriskuan zaudela. Gauza berbera gertatzen da lesbiana (edo gay, edo trans) izatearekin: badakizu edozein momentutan lesbofobiarekin topo egingo dugula. Europar eta Estatu Batuetan ez gaituzte kartzelaratzeko, ez dute gure maitatzeko eta desiratzeko era delitu bihurtzen, baina baztertuak izatearen beldurra sentitzen dugu.

Eta ez da paranoia. Eskoletan jazarpen homofobo eta lesbofobo bortitza bizi dute genero rol tradizionala apurtzen duten haur eta gazteek. Bikotearekin lan afari batera joatea normala da; bikotea gure sexu berekoa baldin bada, enpresa gehienetan ausarta izango da. Eta familia gehienetan, ageriko homofobia zein leunarekin topo egiten dugu: “Nik ezagutzen zaitut eta badakit ez zarela horrelakoa; fase bat da” edota “bide horretatik ez zara zoriotsu izango” edota “ez esan ezer aitite-amamari, sekulako nahigabea eragingo diezu eta”.

Inkestek diote Espainiako Estatu munduan sexu aniztasunarekiko tolerantia den herria dela. Hala bada, zergatik ez dugu ia erreferente LGTBrik? Zergatik ez dago lesbiana dela ezkutatzeko duen aktore, politikari edo musikaririk? Eta lesbofobiaren kontra aktibismoa egiten duen pertsonaia ospetsurik? Zuzentasun politikoaren gizartean bizi gara, ez sexu askatasunaren gizartean. “Lagun homosexual asko ditut eta Chueca-n (Nikaragua) parranda egitea gustuko dut” jarreraren gizartean. “Aizu, nik ez daukat arazorik homosexualekin, baina argi izan ni heterosexuala naizela”. Edota “ez dut nire bizitza pribatuari buruz azalpenik ematen”. Horregatik Euskal Herrian Ellen Page-ak behar ditugu, ez bakarrik erreferente lesbikoak izateko, gizarte honetan sexu aniztasunaren aldeko borroka aktiboaren beharra ulertzen duten pertsonaia publikoen laguntza izateko baizik. ■





Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA ♦



INIGO AZKONA

Sestao berdeagoa

SESTAO, GORRIA. Eskola frankistan irakatsi ziguten Sestao Espainiako populazio dentsitate altuena zuen herria zela, Alemaniako Rhur bailara industrialeko beste baten parean Europako mailan. Kilometro koadro eskas batean fabrikaz inguraturik bizi ginen eta Labe Garaie-tako suak eta hotsak infernu modukoak ziren guretzat.

Espazio berde oso gutxi zegoen. Gaur gutxiago. Iberia kaleko Teresaren estankoa Sestaoko postal bakar bat saltzen zen. Iru-dian, gure etxe aurreko landa bat, Marcelinoren behi batekin protagonista nagusitzat eta urrunean Portugaleteko Zubia. Duela hoge-i bat urteko periodikoan, Sestao behi soil bat erroldatu gabeko Bizkaiko udalerrri bakarra zela, irakurri nuen.

Industria eta langileria ziren Sestaoko funtsik nagusia. Kaskoko plaza, Enparantza Gorria izenda-tua, frankismoren bukaerako borroka sinbolo bihurtu zen. Gero gerokoa.

Trantsizioaren urte bizekin gorria marroi iluna bihurtu zen, urte luzez. *Sozialistoak* gure aita sozialis-tak batzuetan zioen moduan, udalbatzaren lema hartu zuten Sestaon eta desindustrializazioa eta lan-gabeziaren urte latzak etorri ziren.

SESTAO, BERDEAGOA. Aurten loteria berdea egokitu

omen zaie sestaoarrei. Eta bereziki Txabarri kalean bizi diren familia txiroei. Milan, Viena, Bratislava, Aquisgran eta Tamperearekin batera 30 milioi euroko diru-laguntza izango dute, euren etxetan, instalakun-tza berriztatzearekin batera, energia aurrezki-progra-ma pilotu bat martxan jartzeko.

Sestaon pobrezia energetikoaren hiru ezaugarriak agerian daude oso. Krisi ekonomiko sakonaren ebidentziak, energia elektrikoaren garestitze geldiezina eta etxebizitzaren egoera tamalgarria energia erabiltzerakoan

Sestaon pobrezia energetikoaren hiru ezaugarriak agerian daude oso. Krisi ekonomiko sakonaren ebiden-tziak, energia elektrikoaren garestitze geldiezina eta etxebizitzaren egoera tamalgarria energia erabiltzerakoan. Asko kalefakziorik eta ur berorik gabe bizi dira. Hurrengo bost urteetan 1,6 milioi euro jasoko dute 250 familien etxetan berriztatze energetikoaren lanak laguntzeko. Berri onak dira, auzo baztertu honetan gain-bizi dire-nentzat. Ehun urte baino gehiago dituzten eraikinak eta duela 20-30 urte diru publikoaz egindakoak ere progra-ma berean sartzen dira. Biek ala biek

berriztatze energetikoa behar dute eta. Adibide ona, gauzak beste modu batean egin daitezkeela ohartarazte-ko. Eta nire galdera da, zer uste du Iberdro-lak guzti honetaz? Bere energia berdearen programan horrelako esperientziak lagun-tzea sartuko al da? Ala bere dorre erraldoi-tik Txabarri eta Sestao ez al dira ikusten? ■



DANI BLANCO



Edu Zelaia



IDAZLEA

Parpaila atergabe

DIRUAREN BALADA entzun nion kaleko trobadoreari gitarra eskuan: “Kanta dezaket eta esan / ez nabilela diru truke hemen / nahiz eta txanpon batzuk eskatzen ditudan / kalean abesten jarraitzearen”. Aldarrika ikusi nuen ondotik, txapela pasatu bidenabar: “Diru truke egiten ditudan gauzak / aitortzeko modukoak dira, zorionez. / Sosak ditugu munduan agintari nagusi / agintari nagusiek bestelakorik badiote ere”.

Eta bai: maizkara aritzen gara ekonomia-ren gainean, gauzei balio jakin bat (eta baka-rra) eman nahian. Brechtek *Merkatariaren kantuan* adierazi bezala: “Nik ez dakit zer

den arroza / haren prezioa besterik ez dakit”. Halarik ere, batzuetan diru kontuak baino ez jakinagatik ere, nekez aitortzen dugu zenbateko soldata jasotzen dugun. Botoa bezain librea da soldata, librea bezain tabua. Norbaitek esaten digunean zenbat irabazten duen sandiak edo berendiak, informazio pribilegiaturen jabe sentiarazten gaitu konfidentzialtasunak. Ahogozoa egi-ten zaigu. *Belarrigozoa*.

Trobadoreak arrazoi: “Diru truke izan nahiz ez, parpaila / ari du atergabe, bai eta guarda-solpean ere”. ■





Pello Zubiria Kamino

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Beltzeniako izpiritua

ZENBAT SENTIMENDU pilatu ziren otsailaren 8an Hendaiaiko Beltzenian. Espainiako zerbitzu sekretuek Frantziako en elkarlanean (GAL) hildako Bixente Perurena *Peru* eta Angel Gurmino *Steinez* oroitzeko bildutakoek osatu zezaketen ETAk bukatutzat eman duen gudu aroaren mosaiko arimaduna. 1984an irabazgarri zirudien aha-legendaren ilusioak biziturik, hiru hamarkadako bide traketsa ahal bezala zeharkatu eta elkarrekin noizbait bizi izandakoa ahaztu nahi ez duen jendea, izan burusoildu eta zimurtuak, edo 2014ko aldaketaraino iristeko bidean eroriak eta gertatuak baztertzeko barren minberaegiak dituzten gazteagoak. “Hemen bildu gara *Peru* eta *Steinen* senideak, lagunak, burkideak...” aipatu zuen aurkezleak. Kantatu zuten gazteek, 1984an *Peru* eta *Steinen* despedidan kantatu zutenak entzule zituztela. Orduan haurra zen bertsolariak galdetu zien: “Zer uste duzue gutaz?”. Aljerren aurretik dudak ez baziren gutxi, gaur ez direlako gutxiago. Eta urruneko deserititik aberria irensten duen militanteak ozen esan, ez direla denetan ados egon, baina herritarrek erabaki dutela eta jende jakintsuak hala gomendatu, militanteek obeditu behar diotela herriari, zatiketa ekidin eta prozesua aurrera atera behar dela. Entzule eduki zuen bigarren kartzelaldiarekin aurrekoa gehituta 35 urtez goiti metatu dituen aitona askatu berria, gazteek eslogan gisa dioten *Aurrera bolieren* asmatzaileari aurrez aurre entzuten ziona, Francorekin bakean epel bizi zeino borrokan hasia. Estatuko espetxe kriminalean 13 urteko zigorra amaitzea lortu ez duen Arkaitz Bellon gaztearen izpiritua ere ibili zen Beltzenian. Eta beste preso bat, ia 30 urtez espetxean egona frantsesek estraditaturik, bai, euskal gatazkari irtenbidea bilatzen saiatzea agindu ostean gerra zikina baimendu zuen Mitterrand haren biktimak. Gero agur beroa egin zion orduan defenditu zuen abokatuari, han baitzen hau ere, berak defenditu batzuek Aljerreko negoziaketen porrotaren ostean traidoretzat jarri zuten arren, orduko periodikoaren lehen orrian, betiko abokatuak ere Beltzenian egon nahi zuen. Aparatuko politikariak azken prediku luzea amaitzean *Eusko Gudariak* abesteari ekin zionean, aurrean jarraitu ziotenen artean zegoen IK-ko militantea aulki gorpildunean, gehiegi axola izan gabe 1984an bezala 2014an aparatuetako politikariak prediku luzeetan galtzen direla. Eta zegoen aspaldi ezagutzen duzun emakume hura, bai, 1977an mutil-laguna burkidearekin batera guardia zibilek hil zioten hura. Mintzatu zen Hendaiaiko auzapeza, bake prozesua blokeatzeko arriskuan daukagula, eta orain argia ikusten hasi garen garaiotan, denok egin behar dugula ahalegina, eta ez berak eta ez Hendaiaiko herriak ez dituztela ahanzten zerbitzu sekretuek hildakoak. Han zegoen Aljerrez geroztik borroka armatuak aterabiderik ez duela uste zuena, oraindik herria oldartzea posible zela sinetsi zuenaren alboan. Eta asko gehiago jende ibili zen Beltzenian, ekitaldia kontrolatzen, testuak eta afixak banatzen, eta ostatuan pintxo goxoak eskaintzen. Elkarrekin ospatzeko gure ondoan edo urrun samar urte luzeotan besterentzat dena eman dutenen eskuzabaltasuna, pisuen jabe egin eta zahartzaroko erretretarako kotizazioak pilatzea ahazturik. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Miren
Amuriza Plaza



Doinua: Izarren hautsa.



XDZ

Palestinari

Kaixo laguna, zer moduz zaude?
Baretu al zaizu dar-darra?
Zer moduz dago hormatzar horrek
estutzen dizun bularra?
Inpunitatez zu miaztera
gaur zenbat aldiz sartu ote da
armada israeldarra?
Lehenengo hura izan genuen
bisita labor samarra,
baina ezin dut burutik kendu
orain zure deia darra.
Mundu borobil baten ertzean,
zeu zarelako zure etxean,
gaur kea, bihar sugarra,
preso dagoen bakarra.

Eguneroko bizimodua
ere erresistentzia da:
check point batetik pasa ondoren
joatea eskolara,
horman biltzea jende gaztea
ta lehio handi bat marraztea,
esna pasatzea gaba,
ez kikiltzea sumatu arren
zure atzetik Mossad-a,
ta pentsatzea bidean dela
hirugarren Intifada...
Munduak ez du ikusi gura,
baina ez da inoiz amaitu guda,
eta zu han jaio zara;
gatazka baten alaba.

Negar zotinka agurtu ginen,
hura zen egonezina!
Eta eskari bat egin zenigun
erakutsiz zure grina:
“Israeldarrei egin boikota
nire esperantza hortxe dago ta!”
beteko dugu jakina.
Nahiz eta zure eguneroko
egoera den gordina,
hitz bitan zara guztiz txunditu
ninduen herri sorgina.
Hebron, Jeriko, Gaza, Ramalah,
aske izango dira, *inshala!*
Indar bilakatu mina,
ta eutsi gogor Palestina! ■

«Biziraupena kontsigna guztien gainera dago»

Nobela ekarri zuen udazkenean Garbiñe Ubeda Goikoetxeak. *Hobe isilik* (Elkar, 2013), Augustin Zubikarai beka jasotako proiektua mamiturik heldu zitzaigun. Aitona desagertuaren bilako ibilia, batetik, narratzailearen barne munduko korapilo bihurria, bestetik. Kazetari genuena plazara irten da, idazle egina.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Hobe da isilik?

Askotan bai, nahiz eta kosta egiten zaigun isilik egoten. Ez dakigu isilik egoten.

Hobe da egia gorde?

Egia erdizka dakigunean, hobe da isilik, bai, egiaren muina ondo jakin arte behintzat. Ez baitakigu egia erdi horrek osoaren antzik izango duen ere, eta min handia sor daiteke, atzerabiderik ez duen mina, gainera.

Zerk jarri zintuen *Hobe isilik* eleberri honen bidean?

Etxean eta nire baitan bizi izan dudak prozesuak. Bizitzako urte dexente eman ditut modu batera edo bestera aitona bileren bila. Ez buru-belarri horretara jarrita, baina mentalki bileren bila. Harroa eman badezake ere, aurkituko nuela pentsatzen nuen beti. Bilatze horrek bidea egin zuen Hendaian, hara bizitzera joan ginenean. Frantziako administrazioaren funtzionamendua apur bat ezagutzeak pauso bat harago ematen lagundu zidalako. Desagertze horren atzean dagoen historia ikaragarria kontatu beharra neukan, baina ez gure etxekoentzat soilik, denok ulertzeko klabea bai. Gure aitona pertsonaia bihurtu eta bere historia kontatzea denon onerako izan zitekeela uste nuen; nobela erresolbitzeko utzi ditudan inkognitak barne.

Fikzioa baliatu duzu gertaera erreala oinarri duen narrazioan...

Zalantza izan nuen kazetaritzaren bidetik jo, edo fikziotik abiatu, literaturatik. Baina kazetaritzak –kazetaritza zurrinak, bost uve bikoitzak, esan nahi dut–, nekatuta nindukan.

Hitzez idatziz

“Garbiñe Ubedak idazten du, hitzez ez dakielako bere burua horrela agertzen. Hitzez motza izanez gero, errazago da idatziz nork bere burua adieraztea. Beste batzuek musika bidez egiten dute. Nik, idatzian bilatu dut nire bidea. Berandu deskubritu dut. Kazetaritzak ireki zidan bidea –horretan eman ditut urteak–, eta berandu ausartu naiz literaturan”.

Bide estu horrek ez zidan laguntzen aitona-ren historiaren bilaketan egin ditudan hausnarketak, kezak eta minak kanporatzen. Fikzioak, berriz, ate guztiak zabaltzen zizkidan.

Aitona desagertu zitzaizuen 36ko Gerraren ostean: Jose Ubeda Apaolaza... Haren historia da *Hobe isilik*...

Gutxi gorabehera, bai. Altsasun sortu zen, ama altsasuarra, aita Madril partetik etorria, nonbait. Paralelismo handia dago, beraz, gure aitona eta liburua ageri den desagertuaren artean. Paralelismo handia, batetik, eta distortsio handia ere bai, bestetik! Gauzak nola gertatzen diren eta ageri diren pertsonaiak ez dira, zehazki, gure historia, nahiz eta, oinarria, gure familiaren historia den.

Ez da zuen etxean aitona-ren historiari heltzen diozuen lehenengo aldia. Zure anaiek ere kontagai erabili zuten Bide ertzean-en *Non dira* diskoan...

Aipatu zituzten bai, aitona, birraitona... Esate baterako, birraitona [Jose Ubeda Sanchez] Urbasako zuloaren batean dago. Gure etxeak aipatu zituzten, bai, baina gerrak sortutako biktimak hartu zituzten, oro har, kantagai. Nik, aldiz, historia zehatz bat hartu dut, historia zehatz baten bila abiatu naiz liburua.

Aitona-ren historiarekin batera –hark egin zuen balizko bidearekin batera–, narratzaileak aitona-ren bilaketan egiten duen barruko bideak ere garrantzi handia du *Hobe isilik* nobelan. Narratzailearen gogoeta, kontraesan, atzerakurrak...



ERDIKO KAIERA

poko Nevada baino, bere barruko mundua kontatzea interesatzen zitzaiola...

Tira, oraindik ez dut Nevadako hori irakurri, baina aitonaren historia kontatu nahi izan banu, besterik gabe, nobela historikoa egin beharko nukeen, eta niri hori ez zait axola. Gainera, ezinezkoa da aitonaren larruan sartzea. Guk gaurko eguna bizi dugu, onerako eta txarrerako, eta *Hobe isilik* da nik neure buruari —neure buruari lehenengo—, espikatu behar niona. Ondoren dator nire barruko kezka eta pentsamenduak sozializatzea, nolabait.

Besteak beste, galderak sozializatu dituzu irakurlearekin. Narratzaileak bere buruari egiten dizkion hainbat eta hainbat galdera, erantzunik ez dutenak, aitona galdu hark beste inork erantzun ezin dituenak...

Ez nuen ezer epaitu nahi, nahiz eta horretarako joera dugun denok ere: testuingurua behar bezala ezagutu gabe, dena gure galbahetik pasatzekoa. Joera dugu, eta, beharbada horretaz kontziente naizelako, agerian uzten saiatu naiz liburuan. Narratzailea etengabe saiatzen da horretan ez erortzen, eta epaitu ordez galderak planteatzen.

Nola asmatu duzu bilaketa horren historia egituratzea?

Ez dakit, bada, nola egin dudanez ere, ez dut horretarako espikaziorik. Jakin nekien bakarrik da protagonistak bizirik balego bezala hitz egingo ziola desagertuari.

Augustin Zubikarai beka jasorik dator *Hobe isilik*...

Proiektua aurkeztu nuenean, zer kontatu nahi nuen azaldu nuen, hau da, aitonaren bila hasiko zela narratzailea eta, bitartean, familiari gainbegiratu egingo ziola, askoz gehiago gabe. Jakina, horrekin batera, lagina bidali nuen. Ordurako idatzia neukan hasiera, puska bat. Uste dut laginagatik emango zidatela saria, nire azalpena ez zen-eta apartekoa... Ni, izan ere, oso baldarra naiz gauzak azaltzen, gauza egin arte ez dakit zer egin nahi dudanez espikatzeko. Hortaz, lagina idaztea zen modurik onena, eta, gainera, ezinbestekoa zen. Ez nuen sariketa horretarako asmorik, baina albotik etorri zitzaidan oharra. Bidali nuen, saria jaso nuen, dirua, batetik, eta liburuazabaltzeko tranpolina, bestetik. Tartean, idazteko obligazioa ere bai, jakina, eta euskaldunok hitzekoak omen garenez, egin dut, epearen barruan...

Aitonaren historia baino gehiago, desagertu horren familiak egin duen bidea interesatzen zitzaidan. Azkenean, gerrak lorratz luzea izaten du, eta desagertuak ondoan bizi ditugun mamuak dira. Hura estaltzen saiatzen gara, baina alferrik da, beti ageri du hondarra, eta hondar horrek noraeza eta kezka eragiten dizkio familiari. Nire kasuan, esaten dizut, desagertuaren historia baino gehiago, hark utzitako zuloak bere familian zer eragin zuen kontatu nahi nuen.

"Egia erdiak egia osoaren antzik izango ote duen ez dakigunean, hobe isilik".

Horixe irakurri genion Bernardo Atxagari ARGIA-ko orrialdeotan *Nevadako egunak* aitzakia. Kan-



“Gauzek bere horretan segitzen dute: batzuek, lehen bezain zanpatzaile eta, beste batzuek, berriz, lehen bezain zanpatu”.

Epe barruan idatzi beharrak presioa ere bada-
kar...

Epeak ez du idazteko modua ezertan baldin-
tzatu. Bestela ere, idazteko asmoa nuen, eta
horrela idatziko nuela uste dut. Urtebete
gehiago izan banu, baliteke beste bukaera bat
izatea liburuak, urratu ahala egin dudalako
bidea. Liburua idazten hasi nintzen eta ailega-
tu naizen lekura ailegatu naiz. Erditik aurrera
garbi nekien bukatu den puntuan bukatuko
zela nobela. Liburua argitaratu ondoren jaso
ditudan zenbait komentario entzun eta gero,
berriz, beharbada luzatu egingo nuen liburua,
haratago joango nintzen.

Noraino?

Aitona desagertuari zer gertatu zaion gutxi
gorabehera jakinda, bonba horrek zer uhin
hedakor duen etxe baten barruan kontatuko
nukkeen. Hori ere esplikatuko nukkeen, seguru
asko, lana idazteko bi urte izan banitu. Baina
hori ez dago jakiterik. Tira, bigarren partea
ere egin liteke, ezta? Kar, kar... Epea jarri
zidaten, eta beharrezkoa da, bestela ez dago
lana bukatzerik, erraza da gauzak geroko
uztea, lana eta familia nahikoa delako. Epeak,
berriz, idazteari lehentasun bat ematea dakar:
hitz eman duzu, bukatu egin behar duzu. Eta
bukatu behar duzu, ondo, gainera! Uste dut
luzapena izan zezakeela nobela honek, baina,
aldi berean, uste dut puntu horretan bukatu-
ta, eta pausatu dituen galderak pausatuta,

Narratzailea

**“Ez, narratzailea
—pertsona hori—,
Garbiñe Ubeda
baino zuhurragoa
da, eta
ordenatuagoa,
besteak beste.
Badu Garbiñe
Ubedak ez duen
segurtasuna.
Sortzen dugun
edozein
pertsonaiak du
egiletik zerbait.
Hori horrela da.
Eta liburu
honetako
narratzaileak
niretik dextente du,
baina Garbiñe
Ubedak baino
nortasun eta indar
handiagoa du,
seguru aski. Ez
daukaguna
proiektatzen dugu
askotan”.**

nahikoa egin duela. Iruditzen zait! Nik esan-
da itsusia da baina! Kar, kar...

**Zeure burua husteko, baketzeko balio izan dizu
liburuak?**

Beharbada, bai. Neure buruari, eta gure
aurreko bi belaunaldiei, beharbada, haien
bizitza duintzeko balio izan du. Hainbeste
lotsarazi zituzten!... Gerratik galtzaile irteten
diren guztiak dira lotsaraziak eta zanparaziak,
eta, azkenean, gertatu zaiena lotsatzekoa dela
sinestera iristen dira, eta, ondorioz, isildu egi-
ten dute. Horregatik, eta errepresioagatik,
jakina. Niri, maila batean, kezkak kanpora-
tzen lagundu dit, baina denak ez dizkit buru-
tik kendu.

**Aspaldi, albiste dugu egunero: hobiak dira
batean eta bestean, mendi-zulo eta bide bazte-
rretan, han eta hemen... Zenbait elkarte, lanean,
historia hori berreskuratzeke guztizko lanean,
eta, zenbait erakunde, aldiz, memoriaren legeak
berandutzen, oztopatzen ari ez direnean... Zer
dio zure barruak horrelakoak irakurtzean?**

Sekulako kontraesanak pizten dizkit gaiak.
Batetik, ilusioa eta esperantza izaten ditut,
pentsatuz halakoren batean gure birraitona
ere azalduko dela, zaila izango da, baina.
Urbasako zuloetan dauden ehunka hil horiek
ateratzea, eta, gainera, identifikatzea, ez da
lan erraza izango. Baina, hala ere, hortxe,
birraitona agertuko den esperantza, eta zor

den egia puska azalera ekartzeko esperantza ere bai. Bestetik, hor dira amorrua eta mala-ostia. Iruditzen zait gerra pasatuta ere, hainbeste urte igarota ere –hirurogeita hamar urte baino gehiago–, lehen bezala gaudela, gauza askotan behinik behin, eta, zer esanik ez, Nafarroan. Gauzek bere horretan segitzen dute: batzuek, lehen bezain zanpatzaile eta, beste batzuek, berriz, lehen bezain zanpatu. Iruditzen zait, eginahalak eginagatik ere, hainbat gauza sekretupean geldituko dela, ezkutuan, betiko.

Aurkezpenean zuk esana: “Hobe da belauniko bizi, zutik hil baino”, Che Guevararen eta gainerakoen hitzak irauliz, alegia.

Esaldia irauli nuen, bai, eta apropos. Fron-tean, lubakian, txikizioaren erdian dagoen soldaduak ezinbestekoa du kontsigna heroi-koa, harrapatuta dago, eta zentzua eman behar dio suntsiketari. Baina gerrak ere badu egunerokotasuna, historia liburuetan aipa-tzen ez den arren, badu babarrunak eltzetik atera behar hori, eta errutina horretan alderantzikatu egiten da kontsigna: biziraupena kontsigna guztien gainetik dago, bizitza da helburua, kosta ahala kosta aurre-ra egitea, horretarako egin behar-rekoak oso heroikotzat joko ez diren arren, esate baterako belau-nikatu. Bizitzarik gabe ez dagoe-lako ezer. Bizitza dagoen bitartean esperantza ere badelako. Eta ez da alferrikako esana: iraun, etorriko da-eta buelta.

Iaz argitaratutako liburuen artean, aipua eta sona jaso du zure *Hobe isilik* eleberriak *Berria* egunkarian, *Jakin* aldizkarian... Laudorioak han eta hemen...

Ez dakit, bada, zer esan. Sekulako beldurra izan diot beti literaturaren parafernaliari. Oso ghettoa iruditu izan zait beti, oso siste-ma itxia, kofradiaz josia eta egurra emateko

Garazi Goiaren iritzia

“Bi irakurralditan bukatu dut *Hobe isilik*. Zein eder. Hain ongi kontatzen du istorioa! Ez dakit antzeko egoerak biziko zituen, edo istorioaren zenbat izango den erreala –baina gehiagotan esan dudana bezala, horrelako sentsazio hunkiga-riak eta, askotan, oilo-ipurdia sortzen badu narrazio batek, zer axola dio erreal, irreal, fikzio edo zer den–. Esaldi asko-rekin gelditu naiz, ‘Denok dugu sekreturako eskubidea, baita hil ostean ere’... Izan ere, liburuan kontagai dituen bezalako sekretuak eta, oro har, sekretuak ezkutatzea mingarria eta gogorra izaten da. Askotan, ordea, sekretua desestaltzeak ez ote digun min gehiago emango asmatzea hain da zaila. Zer da hobe, sekretua jakin edo ez jakin? Hortxe dilema”.

zalea. Nobela bukatu nuenean, horren gai-nean esango zutenari kasurik ez niela egin-go erabakia nuen. Beharbada besterik idaz-teko gogoa kenduko zidatelako. Aintzat ez hartzen saiatu naiz... Denok ditugu beldu-rak.

“Desagertuaren historia baino gehiago, hark utzitako zuloak bere familian zer eragin zuen kontatu nahi nuen”

Hobe isilik galtzarbean hartu eta hemendik hara eta handik hona ibiltzeko asmorik baduzu?

Ez dakit. Bizpahiru irakurle-klu-bek deitu naute, saioaren bat edo beste egin dut –oso gustura ere, Iruñean–, baina, heltzen da momentu bat... disko akastuna-

ren sentipena sartzen zaizu... Uste dut nire lana egin dudala: liburua idatzi dut, galderak egin ditut bertan, eta galdera horiek dira nire ekarpena, eman dezagun. Hortik aurrera, nork bere erantzuna bila dezala, ze bataren eta bestearen erantzunak ez dute zertan bat izanik. Nork berea bila dezala. Jendeak nirea nahi baldin badu, emango diot, baina, beharbada, desilusioa izango du entzundakoan. Dei-tzen duenak hobe du hori jakin. Kar, kar... ■



Liburu azoka

Bermeon, otsailaren 28tik martxoaren 9ra Lamera plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Erabilgarritasunari begira, aurpegia berritu du *Behinola* aldizkariak

Galtzgorri elkartearen harribitxia itxuraldatuta heldu zen abenduan. Hizki bidezko sailkapena onenak emanda zegoela eta, zenbakiz jarraituko dio ordenari aurrerantzean, 28.etik hasita. Sepia kolorearen elegantzia eta liburu moldeko koadernaketa atzean utzi ditu, gorde behar den gutziaren zentzua gaindi zezan, egunerokoan erabilgarriagoa izan dadin.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

HAMALAU URTE zeramatzan *Behinola* Haur eta Gazte Literatura aldizkariak taxukera bertsuan, 1998an estreinakoz plazaratu zenetik, hain zuzen. Diseinu moldeak aldatu egin dira geroztik, eboluzionatu egin dute, eta erredakzio batzordeko kideei joera berrietara moldatzeko premia ari zitzaien nagusitzen. Hausnarketa txiki baten ondotik etorri zen aurpegi berritzea, Lore Agirrezabal koordinatzaileak argitu digunez. Aitziber Alonso ilustratzaileak, esate batera, behin eta berriz hartzeko moduko argitalpena nahi zuen, “eskuratu, ikusi eta, zerbait gustatuz gero, ebakitzeko beldurrik emango ez lukeena”. Liburu iruzkinen atalak –seguen gehien baliatzen dena, erabiltzaileek iritzi eta argibide bila jotzen baitute bertara–, orrialdeak ertzetik ebakitzeko gomendioa dakar orain, aldizkaritik aparte, bere horretan, nahieran erabiltzeko eta gura den tokian paratzeko.

Azaletik bertatik hasita, *Behinola* aldizkariago da orain. Irizpide periodistikoek garrantzi handiagoa hartu dute hala atalak asmatzerakoan nola berauek ilustratu eta estilora moldatzeko eran. “*Hitzontzi*, *Hitz eta pitx* eta hitzarekin sortutako gainerako izenak atzean utzi ditugu, aldizkaria hasieratik jarraitzen ez zuenak zaila baitzuen atal bakoitzean zetorrena harapatzea”, azaldu digu Agirrezabalek. Ildo beretik dator ilustrazioez eginiko hausnarketa ere: “Lehen ilustratzaile bakar batek

hartzen zuen aldizkari osoko irudigintza bere gain. Ilustratzailearen plaza bilakatzen zen aldizkaria, nolabait esanda, baina arriskuak ere bazituen, irudi horiek ez baitzuten inolako loturarik izaten lantzen ziren edukiekin,

eta zenbaitetan nahasgarri ere bazen”. *Behinola* berriak argazkiz osatzen ditu zenbait artikulua, eta baliatzen diren ilustrazioak ez dute zertan egile bakarrarenak izanik. Bestalde, edukiarekin bat datoz.

Eratat sorkuntzari emandako gehigarri batek hartzen ditu erdiko orrialdeak. Ilustratzaileak eta idazleak bikoteka agertuko zaizkigu bertan. “Elkarrekin inoiz lan egin ez duten pareak osatzea da gure

asmoa. Haien esku uzten dugu bietatik zeinek hasi behar duen erabakitzea. Alegia, zerk izan behar duen lehenago, hitzak ala irudiak”, argitu digu Agirrezabalek. Pello Añorga eta Leire Urbeltzek urratu dute bidea eta kasu honetan Añorgaren poemak hartu dituzte lanean hasteko abiapuntutzat. Ilustratzaileari eskatzen zaion beste lanetako bat, azala eta kontrazala diseinatzea da. 28. zenbakian, biak bakar bat balira bezala datoz, bakarren batek grapatatik askatu eta poster modura balia dezakeelakoan.

Itxuraz antzematen ez bada ere, iruzkinen atala ere aldatu



«Haur eta Gazte literaturaren gaineko hausnarketek leku bat eta zabalkundea izan dezaten nahi dugu»

Ahalegin handia ikusten da zuen produktuan. Proportzionala al da haur literaturak gure haurrengan duen tokiarekin konparatuta?

Galtzagorrik Bularretik Mintzora egitasmoaren bitartez harreman zuzena izan du zenbait herritako familia, guraso, ikastetxe eta liburu-zainekin, eta haien arteko sarea sortzea da giltzarria, liburua ikastetxean edo liburutegian soilik ez uztea, ez isolatzea, elkarren laguntza behar baitute. Gurasoei lan handia dago. Ikerketek frogatu dutenez, zaletasuna ez da hutsetik sortzen. Haurtzarotik etxean dagoen zerbait baldin bada literatura, gerora ere hori gelditzen da, eta haurtzaroan egon ez bada nekez helduko zaio gerora. Gurasoen inplikazioa, gurasoek haurrekin irakurtzea, partekatua izatea, hortan egiten da ahalegina eta emaitzak oso positiboak dira,

Bularretik Mintzora programan ikusten denez.

Zein da zuen erronka nagusia aldizkari gisa?

Batetik, aurrera jarraitzea. Z-ra iristean, gelditzea izan genuen arriskuak, batez ere egungo murrizketa giroa kontuan hartuta, baina 28.a ere osatzeko aukera ere sortu zen, eta hortik aurrera, kasik infinituraino heltzea nahi genukeela esango nuke.

Bestetik, Haur eta Gazte literaturaren gaineko hausnarketek leku bat eta zabalkundea izan dezatela

desio dugu, eta irakurketa sustatzeko ahaleginak ere balora daitezten. Zentzu horretan, ikastetxe, ludoteka edo dena dealakoak, edonork, irakurketa sustatzeko esperientziaren bat baldin badu, gustatuko litzaiguke gurekin partekatzea. Geu ere saiaturako gara esperientzia berriak bilatzen, horretarako sortu dugun atalera ekarri eta oihartzuna izan dezaten; norbaitek eredugarri dela uste badu kopiatu dezan edo antzekoa egin dezan. Lehen zenbakian Xabier Olasok landu du gaia eta Armentia ikastolaz mintzo zaigu, irakurzaletasuna sustatzeko duten urte osoko programaz.

Galtzagorri zer diote aldaketaz?

Sorpresa polita izan da, gehienek gustukoak. Bazkideen artean erantzun positiboak izan dira jasotako guztiak.



da apur bat. Bistan denez, urtean argitaratzen diren bi zenbakietara ez dago euskarazko produkzio osoa ekarterik. Horietan agertu beharreko liburuen hautaketa burutsuagoa da azken aldian, kontzienteagoa, zorrotzagoa. Galtzagorri elkarteak duen Irakurketa Mintegia baliatzen da horretarako. “Irailtik ekainera hilean behin egiten dira bilerak. Horietan, ikasturtean produzitu dena irakurri eta aztertu egiten da, bereziki haur literatura, 0-10 urte

Ezkerretik eskuinera, Asun Agiriano, Aitziber Alonso eta Lore Agirrezabal, aldizkariaren aurkezpenean.

bitartekoei zuzendua. Liburuak fitxa eta iruzkina egiten dira *Behinolar*”, Agirrezabalen hitzetan.

Azken atalak eman digu arreta. Bi orrialdetan, zenbaki jakin horretan esku hartu duten kolaboratzaileen gaineko informazioa ematen da motzean. Hartutako lanengatik eskerrak emateko modu polita, dudarik gabe. ■





1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.



Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com




Enbalajeak · Biltegiratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com



Helduen Literatura | POESIA

Trenen abiadura
Luis Garde
Pamiela, 2014

Bultzi-leiotik

TRENEN ABIADURA irakurri eta *Unplugged* (Kutxa Fundazioa, 2009) etorri zait gogora ezinbestean. Iritsi ezin gaitezkeen eremuak esploratzeko baliabide-tzat erabili zuen poesia Luis Gardek orduko hartan. ARGIAko orrialdeotan irizten genion “bizitza modernoaren gailu, presa eta hustasun guztiak azaleratzen” zituela, baina betiko galdera zaharrak pausatuz finean: norantz goaz? Ze zulotan galtzen da galtzen dena? Tristeziaren zauriak zelan senda daitezke?

Oraingoan ere gauzak ulertzeko asmoz atera da bidaian poeta, eta esku-hutsik itzuli da. Itzuleran bere barne-paisaia baino ezin izan digu ekarri bueltan. Gudan dago bidaia, dena doa mudatuz trenak aurrera egin ahala. Treneko leihoek, gainera, norbere isla dute itzultzen.

Bi zatitan ebazten den ariketa da *Trenen abiadura* ia-ia monolitiko honetan opatu zaiguna. Lehen poemak Paul Valériren aipua du abiapuntu, zeinaren arabera “gizakiak gaur ez zukeen poesia asmatuko”. Gauzak labur eta efimeroak direla esateko beste modu bat da. Poesia asmakizun delikatu da, gu geu pentsamendu huts.

Bigarren poeman YouTubeko pantailatxoan tren transiberiarra zelan igarotzen den ari da ikusten idazlea, bera Veneziara bidean doan bitartean: “Veneziako kalezulo batean errailetatik irtenda/ las-

terka zihoan neska ezezagun hura./ Nire Tristetia-
ren ondorengo loaldian/ amesgaiztoren batean gal-
dutako neska izutu harekin/ harat-honat korrika
ibili nintzen”.

Sartu-irtenak egiten ditu Gardek imajinaziotik errealtatera. Batzuetan bera ez da inor, eta beste batzuetan dena hartzen du, guztiak dirudi bere amets eta paradoxa. Liburua bera halako gertagaitz eder batekin bukatzen da, non urrun eta urrunago doazen tren siberiarra eta Venetokoa, urrun eta urrunago gorputzak, bihotzak, gero eta bakartiago idazlea bera ere... Bidaia sinbolikoan Garde urtu egiten da, bidaian joan zena handik aldatuta itzuli da, besteen oinazea ezagutu du. “Nork bere minaren izerdian/ blaitzen du inguruko jendea”.

Liburuak detaile politak ditu, eternitatearen inguruko ariketa txalogarria da. Ez ditut ondo ulertu ostera sobietar sistemaren inguruko zenbait adorno, eta iruditzen zaizkit hutsalak hainbat gogoeta metaliterario. Konprimitu beharrean eta triki-traka erraztu, galdu bezala egiten da idazlea helburu garbirik gabe, ez estetikorik ez adierazpi-dezkorik, eta halakoetan melenga gertatzen da. Intelektualizazio gehiegizkoa, ausaz. ■

Igor Estankona



Txapiroak plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



Altxatu
Altxatu
Gor, 2013

Punk-rock doinu bihurriak

IRUNBERRIKO (Nafarroa) hiru gazte, Iker Ariz, Ibai Osinaga eta Julen Abaurrea, dira Altxatu taldeko partaideak. Oso gazteak dira, 14-15 urte besterik ez baitituzte, baina jadanik disko bat kalean dute.

Punk-rock doinuak jotzen dituzte, gitarra, baxua, bateria eta ahotsak baliatuz. The Ramones, The Clash, Hertzainak eta 80ko hamarkadako euskal rock erradikala deitzen den mugimenduko taldeak atsegin dituztela nabarmena da.

Doinu indartsua gauzatu dute, ozen entzuteko aproposa. Diskoa ederki grabatuta dago eta ekoizpena ere ongi burututa dago. Disko osoa aise entzuten ahal da, eta kantuek entzuten ditugunean burua oharkabea mugitzen hasten zaigu, kantuen eritmorra.

Altxatukoek beren kezkak eta ezinegona erraz transmititzen dizkigute. Hitzetan gai politikoak eta sozialak landu dituzte. Besteak beste, Euskal Herriaren independentziaz, krisiaz, arrazakeriaz, burua altxatzeko beharraz eta borrokatzeko grinaz mintzo dira.

Hamar kantu bildu dituzte beren lehen diskora. Taldeak euskaraz kantatzen du, baina *No debes de luchar* kantuan gaztelania erabili dute, eta *The Future is Unwritten* kantuan, berriz, ingelesa. Azken kantu hori The Clash taldeko Joe Strummerren testu bati doinua jarritz sortu dute.

Halaber, haien bizilaguna den Josetxo Goia-Arriben saxofoi jotzaile eta konpositoreak Irunberri goratzeko konposatu zuen Irunberri-Lumbier kantua ere grabatu dute, eta The Specials talde ingelesaren *You're Wondering Now* kantua euskaratu egin dute —*Galdezka ari zara* izenburua jarri diote—.

Hamar kantu horiek grabatu ez ezik, ikus-entzunezko lan bat ere osatu dute, bideoklip bat, *Musika zainetan* izenburuko kantuz. Leihotikan taldeko Aitor Remon bideokliparen filmaketaz arduratu da.

Kantuek erraztasunez, segurtasun handiz eta batere lotsarik gabe jotzen dituzte. Hain gazteak



direnik ez du ematen. Eta gezurra badirudi ere, eskarmentua badute, hainbat jendaurreko emanaldi egin baitituzte jadanik, Nafarroan gehienak. Kantuak egiten badakitela eta beren lokalean lan handia egin dutela nabarmena da. Melodia politak jotzen dituzte, eta kantuei freskotasuna, zintzotasuna eta sinesgarritasuna darie.

Ikerrek, Ibaik eta Julenek Altxatu taldea 2010ean sortu zuten. Hasieran jolas baten gisan hasi ziren, baina, agertokiaren gainean jotzen hastearekin batera, taldean aritzea serioago eta ganora handiagoarekin hartu zuten.

Javier Etxeberria Vendetta taldeko gitarra jotzaile eta abeslaria ezagutu ondoren, lehenbiziko diskoa harekin grabatzea erabaki zuten. Etxeberriaren beraren etxean grabatu zuten, eta Gor diskoetxeari lan txukuna iruditu zitatzaienez, Altxatu taldearen lehen diskoa bere zigilupean kaleratu du aipatu diskoetxeak.

Argi dago orain musika jolas bat baino gehiago dela Altxatu taldeko hiru kideentzat, musika bihotzean sentitzen dutela. “Musika bizitzan, musika zainetan”, *Musika zainetan* kantuan esaten duten bezala. ■

Joxi Ubeda




IPURDIA ----- JATEKO BEHARRA	↓	ADORE HANDIKO ----- PERTSONAIA- REN JAIOTE- RRIA	↓	GAILUR, TONTOR	↓	OSMIOA ----- ILE (BIZ- KAIERAZ)	↓	ABAGUNE, AUKERA ----- KONPARAZIO ATZIKIA	↓	NORENTZAT ATZIKIA ----- LASAI	↓	JAURLARI- TZAKO KARGU ----- IZARTU	↓
↖		↓		↗	↓	↓		↓		↓		↓	
URDAIAZ- PIKO ----- JADANIK	→			↓				↗					
↖							↓						
PINU MOTA	↗	AZKEN ETA HIRUGARREN BOKALAK ----- ZORATUTA						↖			↗		
↖		↓										↓	
			↓										
NORAT ATZIKIA ----- LOTAN	→		↓					↖					
↖													
			↗										
		OXIGENOA ----- SAKANA											
NONDAR ATZIKIA ----- ZURRUNBI- LOA ERATU	→	↓		ZINTZO ----- TARTE, GARAI	↓	LURREKO IRRATI DIGITALA ----- SUGE MOTA	↓	GIGA ----- SOBERA, GEHIEGI	↗	ZAREN HORI ----- DUT (ALDE- RANTZIZ)	→		↗
↖				↓		↓		↓		↓			↗
GARRAIA- BIDE ----- LAOSKO HIZ- KUNTZA	→												
↖					↓								
				OSTERTZ ----- ROENTGEN	→								↓
				↓									
								ELEMENTU KIMIKOA	→				

	P	H	G	O	E	T	S
G	S	E	A	S	A	T	I
	P	E	I	L	G	A	I
D	A	G	E	K	O	A	L
	U	I			A	N	R
L	E	R			K	A	R
L	R	A			G	I	H
	O				L	O	T
T	A	R	O	L	G	Z	U
Z	U	R	N	B	I	L	O
T	R	E	N	O	D	A	I
L	A	O	S	F	R	A	R

Dantza ere hizkuntza gutxitua delako

DONOSTIAN, Gasteizen eta Baionan egon eta gero, Bilboko Alondegira heldu da *Badu Bada: Euskara mundu eleanitzean*. Donostiako San Telmo museoak eta Etxepare Institutuak bultzatua, euskara mundu zabalean ulertzeko modu bat da, erakusketa. Koldo Mitxelena euskaltzain, hizkuntzalari eta ikerlaria zenaren esaldia du abiapuntua: “euskararen benetako misterioa ez da bere jatorria, bere iraupena baizik”.



Dantzaz konpainiak *Babel* estreinatu du *Badu Bada* erakusketan, Bilboko Alondegian. Argazkian, dantzariak entseguan.

Gure hizkuntza ikuspegi sozio-linguistikotik aztertzea baino, egun euskarak mundua azaltzeko duen gaitasuna eta gauza guztiak izendatzeko duen ahalmena da agerian jartzen dena. Joxean Muñoz dugu erakusketaren komisarioa, eta Harkaitz Canok eta biek egin zuten erakusketaren gidioa. “Hainbat erakusketa egin zitezkeen, baina gure asmoa ez zen gaia agortzea. Gure enfokea euskararen erabileran eta horren ildotik sortzen diren arazoetan murgiltzea zen. Galderak, gaiak edo ildoak proposatzea nahi genuen, gero kanpotik elikatzen joateko” diosku Harkaitz Canok.

Idazleak aipatu duen moduan, hizkuntza tresna bizia da, eraldatzen doa denboran, eguneratzen, gaurkotasun. Horregatik, ez zuten erakusketak estatikoa nahi, “jendearen iritzia, erantzunak eta *feed back*-a nahi genuen. Hain zuzen horregatik zabaldu genuen *post-it* bidezko dialogo. Twitter eta sare sozialak erabiltzeko aukera ere bada”.

Hiztunek mantentzen dute hizkuntza bizirik, eta hortik dator *Badu Bada* izena. “Hizkuntza ikusten bada, digitala bada, inprimatzen bada, erakargarria bada, sortzailerik badu, komunikabiderik badu, bizirik dago. Gaia desakralizatu nahi genuen, hizkuntza ez dago isolaturik, harremana du beste hizkuntzekin”.

Hizkuntzaren alde jostagarria eta gozagarria azpimarratu nahi da.

Euskaraz sortzeko, “euskaratik sortzeko”, Maialen Lujanbioren hitzak erabiliz.

Dantza hizkuntza unibertsal

Badu Bada erakusketa Bilbon zabalitzeko, 12 minutuko pieza garaiak dea ondu zuen Dantzaz konpainiak: *Babel*. Donostiako konpainiak badu berezitasunik: dantzari gazteak trebatzen ditu, 16 eta 25 urte bitarteko neska-mutilak baitira konpainia osatzen dutenak. Adriana Pousek zuzendari artistikoak azaldu digunez, “dantzarena ere hizkuntza gutxitua denez, Alondegiko espaziorako eta *Badu Badarako* espresuki sortu dugu *Babel*”. Horretarako, Gonzalo Diaz gaztea ekarri dute Madrildik, koreografia ikasten ari baita han, Goi mailako Kontserbatorioan.

Kanpoko nahiz bertako gazteak bi urtez trebatzen dira Dantzazek osatzen duen plataforman, “gero jauzi egiteko”. Emaizak onak dira zuzendari artistikoak dienez: “2008an sortu ginetetik, 68 dantzari aritu dira gurekin eta horietatik 50 inguru nazioarteko konpainia handietan dihardute egun”.

Bost egunetan prestatu zuten *Babel*, eta estreinaldia otsailaren 20an izan bazen ere, aurreko egunetan entsegu irekiak eskaini zituzten Alondegiko espaziora.

Gonzalo Diaz koreografo eta *Babel*-eko arduradunak esan digu-

nez, “Sortze prozesuan, dantzari bakoitzak duen berezko hizkuntza atera zezan saiatu naiz, gorputz bakoitzaren hizkuntza gutxiagoa, hain zuzen. Dantzari bakoitzaren *solo*-etatik abiatu gara. Gero, hori guztia arautu eta elkarren hizkuntza sortu dugu, bakoitzaren espresibitatea murriztu gabe”.

Fem Rose Has holandarra eta Martxel Rodriguez lesakarra Dantzaz konpainiako kideak dira, 23na urte dituzte. Lehenak, Rotterdamen ikasketak burutu eta gero, ez zuen lanik inon aurkitzen, “horregatik etorri nintzen Donostiara. Aukera ezin hobea da dantzari gazteentzat, bestela ere aukera gutxi daukagulako dantza munduan murgiltzeko”. Martxel Rodriguez erabat ados dago Hasekin, eta funtsezkoa iruditzen zaio Dantzaz konpainiak egiten duen lana. “Eskolatik atera berria zarenean, ia ezinezkoa da konpainia batean sartzea. Konpainia honetan esperientzia hartzen da eta oholtza gainean lan egitera behartzen zaituzte. Horri esker, konpainia handietako kide izateko egiten diren ikusaldietara erosoago zoaz, esperientzia profesionala lortzen baituzu. *Babelen* nork bere barne hizkuntza landu dugu, eta hori, teknika bera lantzea baino garrantzitsuagoa da”.

Myriam Garzia



Frantzia egindako ebaketa Japonian ikusi dute zuzenean, Google Glass bidez

NAHIZ ETA *Google Glass* betaurrekoak ez diren ofizialki merkaturatu, Philippe Collins kirurgialari ortopedistak eskura izan ditu eta Britainiako Rennes-etik hurbil dagoen Saint Grégoire ospitalean egindako ebaketa batean erabili ditu.



JACK35.WORDPRESS.COM

80 urteko gizonak bizkarraren apurtuta zituen tendoiak konpontzeko ebaketa izan zen *Google Glass* bidez transmititutakoa. Antza, gaixoari kokatu beharreko protesia Japonian ekoizitakoa zenez, interes handia zegoen Frantzia zein Japonian ebaketaren nondik norakoetan.

Horretarako, *Google Glass*-etan erabiltzeko aplikazioak sortzen dituen AMA deitu enpresa frantziarrak aplikazio zehatza sortu zuen betaurrekoen bidez irudiak filmatu eta ikusleekin iruzkinak trukatzeko.

Ebaketa online transmititzea ez da berria, baina orain arte, hori egin behar izan den bakoitzean azpiegitura teknologiko astuna behar izan da; orain, aldiz, betaurreko xehe batekin eragiketa berdina lortu da. ■



ttiki.com/61338
(Gaztelaniaz)

Pirinioetan sumatu zuten Kantauriko itsas denboralea

Azken denboralearen indarra Pirinioetaraino iritsi zen. Hori erakusten dute Geodyn Lurpeko Laborategiko sismografoek. Canfrancen dago laborategi hori, eta, hango sismografoek egindako neurketetan, garbi ikusten da olatuen garaiera bat datorrela uhin sismikoen amplitudearekin. Hain zuzen ere, olatu handiak izan zirenean, amplitudea areagotu egin zen.

ttiki.com/61339
(Euskaraz)

Eguzki zentralik handiena

ORAIN ARTE munduko eguzki zentral handiena Abu Dhabin zegoen, baina hemendik aurrera AEBn aurkituko dugu.

Ivanpah deitu zentralak 5 kilometro koadro ditu eta bertan biltzen diren 173.500 panelek 377MW-eko potentzia eskaintzen dute; hau da, 150.000 etxek urtebete behar duten elektrizitate beharrak asetzeko adina.

Panelek andela batean dagoen ura 500°Cra berotzen dute eta prozesuan sortutako lurrinak turbina batzuk higitzen ditu elektrizitatea sortzeko.

Dena esan behar bada, ezin aipatu gabe utzi kostua, 2.000 milioi dolarretik gorakoa izan baita, hau da, potentzia bera eskainiko lukeen gas zentral baten halako lau. ■



Hegoafrikan zuluek arazoak sorrazten dizkiete leopardoei

Hegoafrikan zuluek, euren ohi-turei jarraituz, hainbat animalia-aren larruak janzen dituzte ospakizunetan. Besteak beste, leoparden larruak erabiltzen dituzte, eta ondorioz leoparden populazioak behera egin du era larrian.

ttiki.com/61340
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Udaberria auspotzen

HALTZA (*Alnus glutinosa*) eta pagoa (*Fagus sylvatica*) dira egur onenak beti urpean egon behar duten zimenduak egiteko. Makina bat zubi eta kai eraiki da haien bizkarrean. Venezia erdia haltza gainean erikia omen dago. Haltza bila bazabiltza, uretara jo; urpean eta ur ondoan. Erreka bazterretako nagusia da, eta hortxe sortzen dituen oihanek berebiziko garrantzia dute ingurumenean. Kantauri aldeko haltzadiak oso izaera berezia du. Haltzak eta urak uztarri ederra osatzen dute. Neguaren erdia egina dugun honetan, haltzak loreak zabaltzen ari dira eta, urrutira begira, gorri-more, ubel, urardo koloreko errekek dira urari segika etorritako haltzadiak.

Neguaren erdi lanak eginda, landaredia borbor ari da. Abendu hotzak dena atzeratu zuen eran, urtarril eta otsail epeletan eguna argiarekin batera luzatu eta tenperaturak gora hasita, lurra bero-tzeari ekin dio. Borborkan begiak harrotu, loreak zabaltu, polenak aineratu, hostoz jantzi... denetik ikusten ari gara. Hau dena izerdiak bultzatzen du, lurretik hartutako uretan nahastutako jaki gozoen elixir horrek. Bultzatu bai, ponpa baten gisa zainetatik adar punttetara puztuz bultzatu.

Hau da naturaren emankortasuna auspotzeko jaien sasoia.

Eslaviar kulturetan, martxoarekin ekiten zioten urte berriari. Eta, beraien hizkuntza askotan, martxoari urkia deitzen diote. Zuhaitz honek berebiziko garrantzia du kultura haien lurretan, eta izerdi berria datorkio. Izerdi hori zuhaitzari kendu, eta gorputza arazteko erabiliko dute, neguan pilatutako toxinak botatzeko. Ameriketako indiarrek bezala. Analisiek bere osagai onurgarriak berresten dituzte: azukreak (glukosa, fruktosa, galaktosa...), aminoazidoak (glutamina eta azido glutamiko, citrulina...), azido organikoak (malikoa, zitrikoa...), mineralak (kalzioa, potasioa, zinka, manganesoa, magnesioa, fosforo...) eta abar.

Hostoak zabaltu aurretik biltzen da izerdi hau. Enborra zulatu eta tutu baten bidez ontzi batera bideratzen da. Adar mutur bat moztu eta zaurian bertan botila batean jaso daiteke. Arra beteko diametroa duen urki batek egunean hamar bat litro izerdi eman



Arra beteko diametroa duen urkiak egunean hamar bat litro izerdi eman ditzake.

ditzake. Gordinean edo jarabeen kontzentratuta hartzen da. Baita zenbait ardoetan ere (garagarrarena, mahatsarena...)

Ez al duzu urkirik inguruan? Udaberriko susperraldia auspodakizuke... ■



Zuhaitzen putzak



FRANTZIAN EZAGUNA da Francis Hallé (Seine-Port, 1938-04-15). Botanikaria da, oihan tropiketan eta zuhaitzen arkitekturan espezialista; munduko ospetsuena dela esango nuke. “Sentibera” da, niretzako,


bere izakera ongien adierazten duen hitza. Ilargiari landareengan duen eragina aitortzen dion zientzialari bakanetakoa. Behin, inausketa inoiz onargarria ote zen

galdetu zioten, eta erantzuna: “Ezetz, inoiz ere ez. Salbuespen bakar bat onar daiteke: fruitu arbolak, baldin eta zure elikaduraren oinarri badira. Inausketa krimen bat da, eta infekzio iturri da, beti”.

Berak aurkitu eta jakinarazi zuen zenbait zuhaitzen (pagozoeak, pinuak...) “lotsa” edo “herabetasuna”, gertakari harrigarria. Zuhaitzen zainak eta adarrak, txirikordatu eta elkarrekin nahasi beharrean, tarte bat uzten dute, zirritu bat. Espezie bereko zuhaitzen artean ere antzeman du tarte hau, eta gas trukearekin lotu daitekeela dio. Aldamenekoaren gasak urrundu... ■

Asmakizuna saltzea da gakoa

RAHMAN USTA



Alanbrezko esekigailua Albert J. Parkhousek asmatu omen zuen, baina hori egiaztatuko duen agiririk ez dago. Asmakizunaren patentea Parkhousen nagusi John B. Timberlakeren izenean onartu zen, eta agirian, asmatzaileari dagokion hutsunean, patentea bideratu zuen abokatuaren izena ageri da: Charles L. Patterson.

JACKSON (MICHIGAN, AEB), 1903KO AZAROA. Negu atariko goiz batez, egunero bezala, Albert J. Parkhouse bulegora iritsi zen. Eguraldi hotzak eraginda, esekitokia lankideen berokiz eta kapelaz gainezka topatu zuen. Ez zen hori gertatzen zitzaion lehen aldia, itxuraz langile guztien berokiak eskegitzeko nahikoa gakorik ez baitzegoen Timberlake Wire and Novelty Companyren bulegoetan. Bere neguko beroki bakarra aulkiaren atzean nola zimurtzen zen ikusteaz leporaino, Parkhousek eskura zeukana erabili zuen konponbidea topatzeko: alanbrea eta irudimena. Enpresaren izenak adierazten duen moduan (Timberlake Alanbre eta Berritasun Konpainia), alanbrezko berritasunak ekoizten eta merkaturatzen zituzten; Parkhouse asmatzaileetako bat zen. Alanbre zati bat tolestuz, erdian bat egiten zuten bi obalo osatu zituen, eta goiko aldean gako bat erantsi zien hari muturrak bihurrituta.

Asmatzailea jatorrizko ideia biribilduz joan zen, eta hainbat lankide alanbrezko lehen pertxa horiek erabiltzen hasi ziren. Hala, aste gutxi behar izan zituen John B. Timberlake enpresaburuak bere langilearen asmakizunak ekar zekioken etekinaz jabetzeko. Haren izenean, Charles L. Patterson abokatuak alanbrezko eseki-

gailuaren patentea eskatu zuen 1904ko urtarrilaren 25ean, baita berehala lortu ere. AEBko 822,981. patentearen jabea Timberlake zen, eta asmatzailea, ofizialki, Charles L. Patterson; abokatuak, eskakizuna betetzera-koan, asmatzaileari zegokion hutsunean bere izena jarri zuen. Enpresak dirutza egin zuen alanbrezko uztaia-ri esker, baina Parkhousek ez zuen saririk jaso, ez ohorez-ko-rik, ez materialik. Betiko soldata jasotzen jarraitu zuen Timberlakerentzat lanean aritu zen artean.

“Bidegabekeria” hura ohikoa zen garai hartako AEBn. Esaterako, Thomas Edison, George Eastman edo Henry Ford asmatzaile ezagunek “laguntzaileen” ideiak bere egiteko ohitura zuten, eta ospea zein etekinak banatzeko inolako beharrik gabe.

Merkatuaren lege kupidagabeak saltzaileak saritzen baititu, ez sortzaileak. 1900etik 1906ra arropa esekitzeko gailuen 89 patente banatu ziren AEBn soilik, horietako asko Parkhouseren pertxaren antzekoak eta hura bezain eraginkorrak. Kontua da Timberlakek 20 urtez gorako esperientzia zuela alanbrezko gailuak merkaturatzen, merkatuan dagoeneko tokia egina zuela eta, esekigailua asmatu ez arren, hura saltzen asmatu zuela. ■



Arrastoak

6.000 urte jakiak espeziaz ontzen



HAYLEY SAUL Yorkeko Unibertsitateko (Erresuma Batua) bioarkeologoak Europa Iparraldean duela 6.000 urte jakiak egosteko erabiltzen ziren zera-mikazko hainbat ontzi aztertu ditu. Morkoen barnealdean karraskatuta lortutako laginetan, besteak beste, egungo baratxuri-belarraren (*Alliaria petiolar-*

ta) antzeko landarearen arrastoak topatu ditu. Balio nutritibo eskaseko landarea izaki, Neolitoko gizakiek espezia gisa, jakiak urrintzeko, erabiltzen zutela ondorioztatu du. Saulen hitzetan, “nekazaritzarako trantsizio garaiko ehiztari-biltzaileek jakiak pres-tatzeko jarrera sofistikaturatu zuten”. ■

CARMEN GISASOLA

«Presoen auzian pauso sendoagoak behar dira»

Markina, Bizkaia, 1959. 23 urte eta erdi daramatza preso, egun Zaballako espetxean dago. Langraitz bidea hartutako presoetako bat da. 2011n irten zen lehen aldiz baimenarekin kalera. Egungo egoera politikoa espetxean zein kalean egonda nola bizi duen kontatu digu gutun bidez egindako elkarriketan.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

Argazkiak: Dani Blanco



*“Katuari kriskitina lehenengo jartzeko ausardia erakusten dutenak **traidoretzat** jotzen dira, eta ondoren, multzoa datorrenean, **aldaketa historikoa** omen da”.*

Espetxetik eta kaletik, nola ikuten duzu Euskal Herriko aro politiko berria?

Esango nuke gizartean orokorrean jendeak borroka armatuaren orria jada pasatu duela eta politika guztiz normalizatu batean bizi dela, nahiz eta estrategia politiko-militarraren

garaiko ondorioek konpondu barik jarraitzen duten.

Zer iruditzen zaizu EPPK-k eman berri duen pausoa?

Aurrekoetan bezala, berandu eta zehaztasunik gabe ari da. Borroka

armatua ezer negoziatu gabe utzi ondoren, presoen auzia legezko bidearen eta banakako onuren bidez konpontzen hasiko direla esatea positiboa bada ere, bi urte pasa ondoren pauso sendoagoak behar dira bide horretan eraginkorragoak izateko.

EPPK-k dio erabaki kolektiboa hartu duela eta askatasun eskaerak bana-ka egingo dituztela presoek. Zer datorkizu burura?

Kanpoan, gizartean, ez dago horrelako dilemarik erabaki kolektibo eta pertsonalen artean, eguneroko bizitzan zentzugabea litzatekeelako kartzeletan inposatu dena inposatzea. Are gehiago, jendeak jakingo balu “erabaki kolektiboak” nola hartu diren!

Hala ere, norbaitek erabaki kolektibo eta indibidualekin jolasen jarraitu nahi badu, negoziatzeko egon diren aukera guztiak zapuztu ondoren, jarrai dezala. Bada ordua onartzeko Yoyes-ek bere garaian hartu zuen erabakia beste guztiok ondoren hartu duguna baino zintzoagoa zela eta duintasun handiagoarekin hartu zuela.

Zer datorkidan burura? Katuari kriskitina lehenengo jartzeko ausardia erakusten dutenak “traidoretzat” jotzen direla, eta ondoren, multzoa atzetik datorrenean, “aldaketa historikoa” omen dela.

Joseba Urrusolok joan den urteko martxoan *Deia*-n argitaratutako artikulu batean ondorengoa esan zuen: “Kalera atera ahalko zuten jada (presoek), baina ez dute planteatuko kolektiboa kontrolatzen duten komisario politikoek aukera horiek blokeatuta mantentzen dituztelako”. Presoak espetxean jarraitzearen ardura du ezker abertzaleak zure ustez? Eta ezker abertzaleko nork? Sortuk, Bilduk, presoek arduratzen den erakunderen batek...?

Historia honetan ibilitakook ondo dakigu komisario politikoen talde txiki batek nola kudeatu duen preso-en afera. Beraiek ezarritako estrategiaren ondorioz, presoak zigorrak osorik beteta atera dira orain arte, aurretik irteteko aukerak baztertuta. Baina arazoa ondorengoa da: ezker abertzaleak ez du ausardiarik izan sektore txiki horri aurre egin eta preso-en gaia bere esku hartzeko, alderdia bera legeztatzeke egin zuen bezala.

Estrasburgok *Parot doktrina*-ren aurka egindako ebazpena nola jaso zenuen?

Gehiegikeria bat bideratu zuen. Hemengo gehienok [Langraitz

bidekoak] ere aplikatuta genuen, eta batzuk, baldintzapeko askatasuna zutenak, aske geratu dira.

“Bada inor egindako ezertaz damatu ez denik? Arazoa da presoek dagokigunean hitz horri beste konnotazio bat ematen diotela disidentzia onartzen ez duten sektoreek”

Espetxe legediari begira, 40 urte osorik bete behar dituen presoak zein aukera ditu kalera ateratzeko?

40 urte hemen, zeren badira Frantziako Estatuan 10 edo 15 urte bete eta gero, Espainiako Estatura ekarri eta zerotik 30 edo 40 urteko zigorrak betetzen hasi beharko direnak. Egoera latza da. Orain dela 15 urte Christiane Fando abokatuak argi esan zigun, borroka armatua utzita ere, oso zaila izango zela presoena konpontzea. Beste batzuek, aldiz, orain dela gutxira arte lasai egoteko esaten zuten, PPrekin errazagoa izango zela presoek egoera konpontzea. Horiei galdetu beharko diezu.

“Baimenekin atera ondoren, oso garbi dut askoz gogorragoa dela noiz aterako zaren imajinatu ere ez egitea. Hain ezinezko eta urrun ikusten duzu irteera, horretaz pentsatu ere ez duzula egiten”

Kontua da zigor osoa bete aurretik badirela aukerak espetxetik irteteko, baina ezker abertzalean dagoen diskurtso ofizialean horretaz hitz egitea saihesten dela. 3/4ak soilik aipatzen dira, denboraren epea ez dela kaleratzeko baldintza bakarra esan gabe; Batasuna izena aldatzea soilik Sortu legeztatzeke baldintza bakarra izan ez zen bezala. Orain, hurbilketaz bakarrik hitz egiten dute; zergatik ez baimenez, 100.2 artikuluz, 3. graduaz...?

Horrek arazoaren mamiari aurre egitea suposatzen duelako eta ero-soago daudelako eztabaida antzuetan, gai hauekiko jendearen ezjakintasuna baliatuz.

Espainiako Estatuaren jarrera nola baloratzen duzu?

Espainiako Estatuaz hitz egiterakoan zerbait homogeneoa izango balitz bezala hitz egiten da sarri, baina ez da horrela, estatuan iritzi ezberdinak daude. Egungo gobernuaren jarrera denok dakigu nolakoa den. Hala ere, gobernu edozein izanik ere, ez da bere jarreraren zain egon behar guk geuk eman behar ditugun urratsak emateko.

Baimenekin irteten zara kalera. Nola-koak izaten dira egun horiek?

Oso intentsoak. Ez duzu denborarik izaten nahi duzun jende guztia-ekin egoteko. Jendea alderdi humanoa kokatzen da. Poza adierazten dizu: “Bazen garaia, ea noiz bukatzen den guztia...”. Emozioz adierazten dizute hainbeste urte barruan pasatu ondoren etxera itzultzen hastea.

Gaur egun bigarren graduan zaude espetxean, horrek pixkanaka egokitzeke aukera eskaintzen du. Baina, era berean, gogorra izango da kalean egun batzuk pasatu ondoren berriro ere espetxera itzultzea, ezta?

Begira, Irlandan negoziatu aurretik ere baimenekin ateratzen ziren, eta hemen oraindik ezbaian jartzen da hainbeste urte barruan egin ondoren baimena eta gero norbere kabuz espetxera itzultzea. Aldiz, azken urteetan maiz ikusi dugun bezala, ez da inoiz kuestionatzen norberak bere burua espetxean aurkeztea, maletak eginda, sei edo hamabi urteko zigorrak betetzeko.

Dena den, baimenekin atera ondoren, oso garbi dut askoz gogorragoa dela –zigor luzea betetzeko duzunean– noiz aterako zaren imajinatu ere ez egitea. Hain ezinezko eta urrun ikusten duzu irteera, ez duzula horretaz pentsatu ere egin nahi. Eta gogorra da urteak joan eta urteak etorri, gure



Paube, Kordoba... Zaballa

Espetxe zigorra: Frantzian 10 urteko zigorra bete nuen. Jarraian estraditatu egin ninduten, eta Espainian 30 urteko zigorra ezarri zidaten, *Parot doktrina*-rekin. Guztira 23 urte eta erdi daramatzat preso.

Noiztik espetxean: 1990etik.

Zein kartzeletan egon zara: Paube, Fléury-Mérogis, Rennes eta Fresnes (Frantziako Estatuan). Soto del Real, Ávila, Córdoba eta Zaragoza (Espainiako Estatuan). Langraitz eta Zaballa (Euskal Herrian).

Nola lortu dituzu espetxe onurak: Legalki dagozkidan eskubideak eskatuz. Sortukoek legeztatzeke egin zuten bezala. Ez dago beste misteriorik.

Noiztik bigarren graduan: Langraitzera iritsi nintzenetik.

Noiz irten zinen lehenengo aldiz: 2011ko irailean.

senideek aukera hori ikusten ez dutela sentitzea.

Aldiz, egun batzuetarako bada ere, etxean berriro ikustea izugarrikoa da senideentzat, ikusten baitute posible dela eta handik gutxira berriro itzuliko zarela. Pentsa hori zer izan behar den 30 urtez etxera noiz itzuliko zain egon diren senideentzat!

EPPK barnean egon zinen eta gero EPPK-tik kanpo. Nola aldatu zen zure egoera?

Bizitzako beste esparru askotan gertatzen den bezala, nire ustez erabakia hartzea da kostatzen dena. Urteak eman nituen barruko eztabaida antzuetan, aspaldi hain begi bistakoak ziren balorazio eta proposamenak egiten, gure kabuz urrats zehatzagoak eman behar genituela erabaki nuen arte. Lasaitasuna sentitu nuen, EPPK-n zaila zelako gauza potoloak ezbaian jartzea. Askatasuna ere sentitu nuen beste batzuekin batera pausoak eman ahalko nituelako, inork freno-rik jarri barik. Eta hala izan da.

Zer suposatzen du EPPK-tik kanpo egoteak? Espetxean eta kalean aldatetarik badago?

Ez pentsa mundua EPPK-n hasi eta amaitzen denik! Aldaketa? EPPK uzteko erabakia hartzen den unetik politikoki ideiak eztabaidatzeari ekin ordez, mamia estali eta maila pertsonalean erasotzen da disidentea, psikologikoki mintzeko. Eta suntsiketa hori aparatutik

zuzentzen da otzanenak eta segidismoa besterik egiten ez dakitenek praktikan jar dezaten, disidentea eta bere familia baztertzeko.

Lehen unetik laguntza juridikoa eta ekonomikoa kentzeaz gain —nahiz eta herrietan preso guztientzat laguntza eskatzen jarraitu, soilik EPPK-ko presoentzat izaten da biltzen den guztia—, etsaiari jokoa egitea leporatuko dizute. Edota erreta edo nekatuta egotea leporatuko dizute kolektiboa kontrolpean duen komisario politikoei eta enparauek, psikologikoki hondoa jo dezazun. Borroka armatuaren folklorean ibiliz, ETAn ez sartzea erabaki zutenek pintadak egin zizkidaten herrian estrategia militarretik estrategia politikora igaro behar zela mantentzeagatik.

“Ezker abertzalean dagoen diskurtso ofizialean 3/4ak soilik aipatzen dira, esan gabe denbora-epea ez dela kalera ateratzeko baldintza bakarra; Batasuna izena aldatzea Sortu legeztatzeke baldintza bakarra izan ez zen bezala”

Baina horrek indarra ere ematen dizu aurrera jarraitzeko, hainbeste urteren buruan beraien estrategia guztiak hutsean geratu edo porrote-rra eramán dituztenen jokaerak besterik ez direlako.

Noiz sortu zen Langraitz bidea?

Guk bagenekien Loiolan negoziatzeko geratzen zen azken aukera zapuztu zutenak borroka armatuarekin jarraitzeko tematuta zeudela. Beraz, ez genuen gure etorkizuna horien esku utzi nahi. Gauzak horrela, kartzeletan preso guztioi aukera bat, irtenbide bat, eskaini zitzaigun Loiola ondoren. Parametro batzuetan kokatuz gero, legediaren arabera urratsak eman ahal izateko aukera zen. Parametro horiek borroka armatua alboratzea eta egindako mina onartzea ziren. Guri ondo iruditu zitzaigun proposamena. Espetxean gurekin zeuden kideei esan genien zein erabaki hartu genuen. Ondoren, Zuerako espetxean ginen hiru lagunek eskaera idatziz bideratu genuen, eta hurrengo astean Langraitzera ekarri gintuzten.

EPPK-tik leporatu zaizue zuen bideak haien errepresioa laguntzen duela.

EPPK-ren izenean hitz egiten dutenei buruz ari zara... Ezagutzen ditugun presoek ez dituzte halako pitokeriak esaten. Gurekin espetxean egon direnek oso ondo dakite beraien bizi baldintzak ez direla gure jarreragatik batere okertu. Zuerako espetxean berdintsu jarraitzen dute eta Kordobakoan dauden emakumeen bizi baldintzak ez dira batere aldatu. Orokorrean, lehen bezala jarraitzen dute. Beraz, horrelakoak esatea manipulazio hutsa besterik ez da. Ea egunen batean egiaren batzordea edo horrelako zerbait egiten den, beste gauzen artean

EPPK-ren izenean erabili diren gezurrak eta beharrezko egia azaleratzeko.

Hainbatek uste du Espainiako Estatuak erabili egiten zaituztela.

Gauza bera esaten zuten borroka armatuarekin amaitu beharra zela esaten genuenean, edo biktimekin elkartu ginenean, edo espetxe onurak lortzeko bide juridikoak jorratzen hasi ginenean. Beti

berdin. Orain ere hainbatek antzekoak esaten dituzte Sortu edo kolektiboagatik, “likidazionistak” direla eta abar. Guk, eman ditugun urratsak geure borondatez eta geure inizatibaz eman ditugu.

Zure ustez presoek zer egin behar-ko zenukete bake prozesuan?

Lehenik esan nahiko nuke azkenaldian bake prozesuaz sarri hitz egiten bada ere, nire ustez ez dagoela inolako bake prozesurik, gauzak eraman diren lekura eraman direlako. Beraz, jarduera armatuak utzitako ondorioez hitz egitea errealistagoa iruditzen zait; konpondu gabe jarraitzen duten biktimen eta presoan arazoa bideratzeari ekitea. Horregatik, lehen erabiltzen genuen "Itzulezinezko Bake Prozesuaz Konprometitutako Presoak" izena erabiltzeari aspaldi utzi genion.

Nire ustez, sufrimendua hedatu eta gizartea zatitu dugunok elkarbizitzaren aldeko apustua egin behar dugu, pentsaera ezberdina dutenen arteko errespetuan oinarrituz. Baina, aurretik, gertatutakoaren hausnarketa sakona egitea behar-beharrezkoa da, ondoren gure ekarpena gizarteratzerakoan, sinesgarritasuna izateko.

Arnaldo Otegi iaz **ARGIA** egin-dako elkarrizketa batean nabarmendu zuen politikoki zuen ikuspegi bera ez badu ere zuek ez zaretela etsaiak, Madril baizik.

Jakin nahiko genuke zehazki zer esan nahi duen "politikoki ados ez dagoela" esaten duenean, ez dut eta uste politikoki horrelako desberdintasunik dagoenik. Are gehiago, egungo ezker abertzalearen jarduera politikoa EAtik gertuago dagoenean lehengo Herri Batasunetik baino. Ezberdintasuna, agian, pentsatzen dugunaren arabera nolako urratsak, noiz eta nola ematen ari garen izango da.

Bi urte pasatu dira. Nola bizi izan zenuen 2011ko urriaren 20 hura? Zer pasatu zitzaizun burutik?

Berandu, beranduegi zetorrela pentsatu nuen.

Gaur Zortzi liburuaren aurkezpenean ondorengoa nabarmendu zenuen: "Iraganeko sufrimendua aztertu gabe ez dago geroa erakitzerik". Albora begiratzeak

"zauriak ixten" ez dituela diozu. Sufrimenduaren gogoeta hori egiten ari al da?

Urte hauetan guztietan borroka armatuari babes ideologikoa eta soziala eman dion ezker abertzaleari buruz ari naiz orokorrean. Denok txalupa berean arraunean ibili garelako, eta orain onartezina iruditzen zaidalako entzutea ezker abertzaleak ez duela bere jarrera politikoa ezbaian jarriko. Hori eginda, gertatuaren arduraren zama guztia presoengan jartzen baitu.

Ezker abertzaleak ardura politikoa bere gain hartu behar du, gertatuaren hausnarketa serioa eta gizartearentzat sinesgarria dena behingoz eginez. Hori egitea beharrezkoa da, baita presoen egoera bideratzen laguntzeko ere.

Alex Gurrutxagak Berria-n egin-dako kritika batean nabarmendu du liburuan jomugan dagoela erakunde armatuaren burokratizazioa eta "gu guztiok baino gehiago ematen" aritzearen ustea.

ETak abangoardia papera jokatu du beti, ezker abertzaleak berari begira funtzionatu duelarik. Besteen gainetik egoteko uste hori "bizia emateko prest dagoen gudariaren mitoan" oinarritu da. Dena den mitoa besterik ez da; egia esan, nik ez baitut uste bizia emateko prest inor egon denik. Bizia galtzeko arriskua zegoen, ados; arrantzaleak itsasora ateratzen direnean bezala, baina, bizia ematea? Inork ez du horrelako erabakirik hartu.

ETAren biktimak batzuekin hitz egiteko aukera izan duzu. Nolakoak izan dira elkarrizketa horiek? Hainbatetan biktimen ahotik entzun dugu hasieran elkarrizketa gogor-rrak izan arren asko laguntzen duela. Zein iritzi duzu zuk?

Askotan aipatzen den "biktima-biktimario" eskematik haratago joan ginen, guk ez baitugu gure militantzia zerbait pertsonala bezala bizi izan. Modu kolektiboan bizi izan dugu; mugalari, agiriak idazten edota ekintzak egiten ibili gara. Judizialki bako-



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com

 AQUARIUM



tzari erantzukizun ezberdina ezartzen bazaigu ere, ez dut zalantzarik egindako atentatuen bezain erantzule izango nintzatekeela agiriak idazten edo beste edozein egituretan egon izan banintz.

Errespetu osoko elkarrizketak izan ziren. Lehen gure ekintzen helburu besterik ez zirenak edo beraien senideak gure aurrean genituen. Pertsonen aurrean ginen eta dimentsio humano hori zen momentu horietan garrantzitsua. Beraiek bizi izandakoa azaldu ziguten, guk gure gaurko balorazioa transmititu genien, gure ardura eta erantzukizuna onartu eta zurituz gabe. Era berean, aurrera begira, gure gogoetak azaldu edo partekatu genituen.

Bake eta Bizikidetza Lantaldea sortu dute Eusko Legebiltzarrean. Prozesuari nola lagun diezaioke horrek?

Aurreko legealdian onartu zenetik oso garrantzitsua iruditu zait. Denok konpartituko dugun zoru etikoa oinarritzat jartzea beharrezkoa deritzot, hainbeste ika-mika eta hitz jokorekin denbora galtzen ibili gabe. Bertatik atera beharko baita bake eta bizikidetzaren bidea jorrazteko behar dugun markoa.

Damuaaren gaiaz asko hitz egin da azken aldian. Biktimen elkarte batzuek damutzeko eta barkamena eskatzeko beharra nabarmentzen dute.

Nire ustez, betiko hitzen korapiloan jarraitu ordez, iraganari buruzko hausnarketa kritikoarekin hasi

“Zalantzan jarri behar ditugu egindako astakeriak, eta gero bakoitzak ikusiko du zelako hitzekin adierazten duen bere gogoeta”.

behar dugu. Zalantzan jarri behar ditugu egindako astakeriak, eta gero bakoitzak ikusiko du zelako hitzekin adierazten duen bere gogoeta. Adibidez, Lasa eta Zabalaen senideek eskertuko lukete astakeria haren arduradunek astakeria izan zela onartuko balute, eta sentitzen dutela edo ez zela gertatu behar esan edo barkamena eskatuko balute. Ezker abertzalean ere positibotzat hartuko litzateke. Beraz, guri dagokigunean, zergatik ez ditugu guk horrelako urratsak emango besteek zer egiten duten zain egon gabe?

Egindako zerbaitez damutzen zara?

Bada inor egindako ezertaz damutu ez denik? Zu zeu, kazetari gisa, egindako hanka sartzeren batekin pertsonalki damutu izango zara behin baino gehiagotan, ezta? Baina ez zaituzte horregatik kazetari damututzat joko. Arazoa da presoi dagokigunean –beste inongo sektoretan gertatzen ez dena– hitz horri beste konnotazio bat ematen diotela disidentzia onartzen ez duten sektoreek.

Langraitz bidekoek nola begiratzen diozue etorkizunari? Zer espero duzu datozen urteei begira?

Langraitz bidean gaudenok ez dugu denok berdin pentsatzen, zorionez. Etorkizuna? Panorama ikusita ezin dut oso urrun begiratu. Poztuko nintzateke, hainbeste denbora galdu gabe eta sufrimendua luzatu gabe, elkarbizitza eta bakea sendotzeko marko bat adostuko balitz talde politikoaren artean. Baina lortu nahi ditugun helburu politikoekin nahastu gabe. Gerokoak geroko, orain behar dugun markoak elkarbizitza eta bakerako izan behar du. Gure esperientzia eta izan ditugun harremanak ikusita ziur naiz posible dela, ez dela hain zaila izango. Baina, betiere, errealitatea eta ametsak nahastu gabe. ■



Osakidetzak erabiltzaile berrien hizkuntz erregistroa egingo du

Osasun Sailak Osakidetza II. Euskara Planaren ildo nagusiak azaldu berri ditu. Erabiltzaileen eta langileen hizkuntz lehenetasunez eman dituzte azalpenak. Hasierako asmoa Osakidetza erabiltzaile guztiei zein hizkuntza lehenetsiko zuketean galde-tzea bazen, jasotako kritiken ondorioz erabiltzaile berrietara mugatuko dira. Hau da, ekainera bitartean erabiltzaile berrien erregistroa egingo dute eta haiei galde-tuko diete zein hizkuntza lehenetsuten duten Osakidetza erabiltzaileak ez dira plan horretatik zeharo kanpo geratuko. Haiei lehen arretako zerbitzuetan galdetuko diete eta norberaren datuen artean gordeta geratuko da.

Galdetzeak ordea, ez du derrigorrez esan nahi eskatutako hizkuntzan aritzeko aukera emango dutenik. Hori da planari egin zaion kritiketako bat, eskatzeko aukera izango da, baina herritarrei ez zaie



bermatuko euskarazko arreta. ELA eta LAB sindikatuek adierazi dutenez, hortaz gain, lehen mailako zerbitzuetan herritarren eskubideak bermatzen saiatuko dira, esate baterako, harrerako eta administrazioko jendaurreko arreta. Medikuek ordea, zuzeneko harremana dute herritarrekin, eta talde hori euskalduntzeko neurriak apaltzat jo dituzte bi sindikatuek.

Arreta guneetan euskaraz artatuko gaituzte, ia seguru; euskaraz aritzeko gai den mediku espezialista egokitzea aldiz, mirakulua izan ohi da. *Euskaraz bai sano!* kanpainako afixak eragindako irribarre konplizea laster itzali zaigu.

Bahea

Joxan Garaialdek sustatu.com-en esanak:

“Egungo euskaltzainek ba al dute eskubiderik kolokan jartzeko ia ehun urte duen instituzioa, zazpi lurraldeetan eragina duena eta lautan ofiziala dena, eta, batez ere, orain arte eta baita etorkizunean ere euskararen jardunean garrantzi handia duena? Ez, instituzio hori ez da euskaltzainena, herriarena baizik. Badakigu ez dela instituzio demokratikoa; euskaltzain berriak izendatzeko irizpide politikoak erabili izan direla, askotan, akademikoak baino gehiago (gogoan dugu Txillardegirekin egindakoa); euskaltzainek berak erabakitzen dutela hutsuneak norekin bete; euskalgintzan diharduten beste instituzioak ez dutela parte hartzerik, eta abar. Baina, hori alde batera utzita, esan beharra dago Euskaltzaindia guztiona dela, ezin dela instituzio horrekin jolasean ibili, eta nahitaezkoa dela krisi horrekin bukatzea, pertsonalismoak alde batera utzita. Azkenik, herri honi gertatutakoaren berri osoa eta soluzioaren nondik norakoak eman beharrean zaudetela, geure instituzio batekin ari baitzarete”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Gasteiz-1976tik Bilbo-2014ra

MARTXOAREN 3AN 38 urte beteko dira polizia Gasteizko bost langile hil zituenetik, euren eskubide sozial eta laboralen defentsan greban ari zirela. Sarraskia polizia egin zuen, baina Fragak eta Martin Villak gidaturik. Kapitalaren kudeatzaile politikook, zurruntasunez, grebalariek aldarrikatzen zutena negoziatzeari uko egin zioten. 38 urte geroago, martxoaren 3an, Bilbo kapitalismoaren nazioarteko egoitza izango da, *Foro Global España 2014: de la estabilidad al crecimiento* (Espainia 2014 Foro Globala: egonkortasunetik hazkundera) bilkura egingo baitute. NMF, ELGA, EBZ, Europako Batzordea eta beste hainbat erakunderen ordezkariak izango dira bertan. Kudeatzaile politikoei eta ohiko gobernuek —Madrilgoa zein Gasteizkoa—, ez dute dudarik izan harrera egiteko. Urkullu lehendakariak hasiera emango dio foroari eta Espainiako presidente Rajoyk itxiko du.

Euskal Herriko gehiengo sindikal eta sozialak eskatu du mobilizatzeko, jendarteari inposaturiko murrizketen arduradunak salatzeke. Buruzagi horiek soldata milioi-

dunak dituzte eta eurek inposatu dituzte langabezia, bazterketa soziala, pobrezia, eta prekarietatea ekarri dizkiguten politika kapitalistak. Euren erruz izoztu dituzte soldadak eta pentsioak, eta laguntzak murriztu. Eurek erreskatatu dituzte bankuak diru publikoz. Eurek mantentzen eta babesten dituzte paradisu fiskalak. Euren politiken ondorioz sortu da immigrazio politiko eta ekonomikoa, eta bidean hil dira ogi eta askatasun bila joandako asko eta asko, Ceutan, Melillan eta Lampedusan gertatu bezala. Eurak berak dira, behar izanez gero, Gasteizko 1976ko sarraskia errepi-katuko luketenak. Lehendakariak, EAEko ordezkari politiko gisa, egun horretan sindikatuen eta eragile sozialen alboan egon behar luke, kalean, politika horiek arbuizatzeko. Ez da egongo ordea, bera ere kapitalismo basatiaren kudeatzaile politiko bihurtu delako.

Juan Mari Arregi



HIZKUNTZA EREDUAK NAFARROAN

Bizikidetza, baina gaztelaniaz

Hizkuntza eredu ezberdinetako ikasleak ikastetxeetan batzeko eskaera egin berri dio Nafarroako Parlamentuak Gobernuari. Bizikidetza da talde sinatzaileek, denek Bildu eta Aralar-NaBai salbu, azaleratutako arrazoia. Baina hezkuntza komunitateko eta euskalgintzako eragile aunitz kexu dira, bizikidetza hori, ematekotan, gaztelaniaz emanen denaren susmoa dutelako.

Testua eta argazkia:

| ANDER PEREZ |

NAFARROAKO PARLAMENTUAK mozioa onartu zuen pasa den urtarilaren 9an, gobernuari “ikastetxe publikoetan hizkuntza eredu ezberdinak elkarrekin bizi daitezen” eskatuz. Ezkerra taldeak aurkeztu zuen proposamena, eta Parlamentuko gainerako alderdiek, Bilduk eta Aralar-NaBai salbu, babestu zuten. Ondorioz, “hezkuntza eskaintza berrantolatzeko” eskaera luzatu diote Foru Gobernuari, “banaketa bat eman den ikastetxe orotan hizkuntza eredu guztiak” eskaini ditzan. Diotenez, eskolak “bizikidetzarako eskubidea” bermatu behar du, eta zentroak hizkuntza ereduaren arabera banatzeak ez omen du holarik lortzen.

Zizur Nagusiko institutuan A, D eta G ereduak elkarrekin bizi dira, eraikin bakarrean. Ikasgelatik kanpo, ikasleek espazio guztietan bat egiten dute. Eta zentroko langilego osoa ez denez elebiduna, D ereduko ikasle zein irakasleek gaztelaniaz funtzionatu behar izaten dute, besteak beste, orientatzaileekin mintzatu edo atezainetako batzuekin aritzeko. Horregatik, Nafarroako Parlamentuaren mozioa baloratzerakoan, praktikaren esperientziatik mintzo dira Leire Zabaltza eta Mikel Ripodas Zizurko BHIko irakasleak: “Gure



Rosa Ramos euskara teknikariaren ustez, ikasleak batzeko eskaera sinplista da, gizartearen arazo direnak euskararen erabilera murriztuz konpondu nahi direlako. Argazkian, hainbat eredutako ikasleak biltzen dituen Iruñeko San Frantzisko ikastetxea.

ikastetxea mozio honek bilatzen duenaren eredu argia da”.

Ikastetxeko egoerarekin kexu da Ripodas, “azkenean, euskara delako galtzaile beti”, eta horregatik, beldur da euren ikastetxeko funtzionamendua gainerako zentroetara zabalduko ote den. Finean, egoera horretan, “murgiltze eredurik ez dela” deritzo. “Bai, bada”, zuzenduo Zabaltzak, “baina gaztelarazko

murgiltze eredu da, eta hori argitu behar da”. Zuzenean jasan dituzte hizkuntza ereduak elkarrekin egoiteak dakartzan ondorioak, euskararen kalterako ondorioak, alegia. Argi azaldu du Ripodasek: “Gure ikastetxean D eredu dago gelan, atea ixten dugunean; gainerako espazioak erdarak hartuak ditu”.

Bizikidetzaz mintzo da onartutako mozioa, baina Zabaltzaren ustez,

hizkuntza ereduen helburua ez da bizikidetza, hizkuntza baten alde egitea baizik: “Hizkuntza ereduak, hitzak esaten duen moduan, hizkuntza bat lantzeko sortzen dira”. Adibide batekin azaldu du Ripodasek: “Futbolearen aritzen den talde batek harremana izan behar du saskibaloian ari denarekin? Ez du zentzurik. Futbolearen dabilena, une horretan, futbolearen dabil. Eta saioa amaitzean, harremana izanen du nahi duen ororekin”. Konparazioa baliatuz, D ereduan matrikulatu diren ikasleak eskolako jardun osoa euskaraz egin ahal izatea eskatzen dute. Eta ez dute uste horrek bizikidetza kaltetzen duenik. Bestela, Zabalzak dioenez, “ematen du erdarak bakarrik berma dezakeela bizikidetza”.

Antzera mintzatzen da Rosa Ramos, Berriozarko Udaleko euskara teknikaria. Neurri berriak euskaraz ikasten ari den ikasleari “eskolako eremu ez formaletan euskaraz aritzeko aukera ezabatzen” diola uste du. Eta testuak “planteamendu sinplista” dakarrela deritzo, “gizartearen arazo orokorrak direnak euskararen erabilera murriztuz” konpondu nahi dituelako. Testuan agertzen diren hainbat kontzeptutaz ari da, bizikidetza demokratikoa edo gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz, besteak beste. Argi du “planteamendu desiragarriak” direla, “baina horiek ez dira konponduko haurrak elkarrekin jarrita bakarrik”. Are gehiago, proposamenaren planteamendua bera “demagogikoa” dela uste du, “ematen duelako euskaraz aritzeagatik arazo horiek larriagotzen direla”.

Banaketa ala ghettoak

Nafarroako Euskararen Legeak hizkuntzen irakaskuntzarako hiru eremu banatzen ditu. Hala, eremu ez euskalduna izenekoan herritarrek, lege, ez dute D ereduan ikas-

teko eskubiderik. Beste bi eremuetan, D ereduaren gainerako hizkuntza ereduak –A, B eta G ereduak– batera bizi da. Egun, hogeikastetxe ingurutan nahasten dira D eta gainerako ereduak. Garai batean askoz gehiago izan ziren, baina urteen poderioz, hizkuntza ereduen araberrako ikastetxeak banatzea izan da joera nagusia. Parlamentuak onartutako mozioan azaltzen denez, banaketa horrek “eragin negatiboa dakar ikaslearen sozializazio eta bizikidetzarako hezkuntzari dagokionean”, eta Hezkuntza Departamentuari –UPNren eskuetan dagoena– egozten dio horren ardura.

“Gure ikastetxean D ereduaren dago gelan, atea ixten dugunean; gainerako espazioak erdarak hartuak ditu”

**Mikel Ripodas,
Zizurko institutuko irakaslea**

Baina Ramos ez dator bat irakurketa horrekin, eta ez du uste zentroak hizkuntza ereduen arabera banatzeko joera hori “eguraldia bezala etortzen den zerbait” izan denik. Oso bestelakoa da bere azalpena: “Prozesu hori eman zen jendeak ikusi zuelako antolaketa hori beharrezkoa zela, batez ere Iruñerrian, haur askok eskola bakarrik dutelako euskarazko eremutzat”.

Horregatik, Ramosek ez du uste egoera horrek ghettoak sortzen duenik. Eta baleude, “konpontzeko modua ez litzateke denok gaztelaniaz egitea eta kito. Hori asimilazioa da”. Euskara hutsezko espazioak sortzea, bere ustez, euskarak bizi duen egoerak eskatzen duen neurria da. “Hizkuntza komunitateen egoerak ezberdinak direlako izan behar dira ezberdinak hartutako

neurriak”. Eta nekatuta dago behin eta berriro arrazoi bera azaldu behar izateaz: “Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren gaian denok ulertzen dugu hori, baina euskararekin ulergaitza zaie”.

Richard Weyndlingek, ordea, ongi ulertzen du euskarak eremu propioa izatearen beharra. Eskozia-rra izatez, Iruñean bizi da azken 20 urteetan. Harro azaltzen duenez, bere semeak hirueledunak dira, eta euskara, gaztelania eta ingelesa dituzte ama hizkuntzatzat. Horregatik, eta ingeles irakaslea izandakoa delako, gertutik ezagutzen ditu hizkuntzen ikasketarako beharrak: “Umeek, hizkuntza bat baino gehiago ikasi ahal izateko, argi izan behar dute non erabiltzen den hizkuntza bakoitza; erabilerarako erreferentzia bat behar dute”. Horregatik, eta “gaztelera indar oso menperatzailea delako”, argi du euskarak “eremu bereizita” behar duela. Eta kexu da mozioarekin, aplikatuz gero, “ikasgela litzatekeelako euskarazko espazio bakarra”.

Edonola, Weyndlingek ez du ukatzen hizkuntza ereduen arteko harremana bultzatu behar denik. Baina argi du gaztelaniazko ereduaren ikasten dutenak euskara eta euskal kulturara hurbiltzeko baliatu behar dela harreman hori, eta ez alderantziz. “Euren kultura bera ezagutzen ez dutenek horretarako aukera izan dezaten”, alegia. Ideia horrekin bat dator Ramos ere, eta “erdaldunei euskarari buruz hitz egitea komeni” dela dio. Finean, bizikidetzaren oinarria errespetua dela uste du, eta “errespetua ezagutzen oinarritzen da”. Era horretan bakarrik, elkar ezagutzaren bitartez, berma baitaiteke bizikidetzaren ez izatea gaztelaren sinonimoa. Edo, alderantziz, bizikidetza euskaraz ere posible izatea. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

**gure
artean
euskaraz**



**BFA
DFB**

ALDAKETA SOZIALERAKO BATZARRA

Jendartetik dator aldaketa Nafarroan

Idea bat dabil Nafarroan. Ahoz aho hedatzen doa aldaketa sozial eta politikoaren beharra. Eta bada, gauzak errepikatzearen errepikatzeaz bete egiten direla dioenik. Ez da kasua. Horregatik, aldaketa amets izatetik errealitate izatera pasa dadin, lanean ari da Aldaketa Sozialerako Batzarra. Praktikak balio duelako. Edo, batzarraren beraren hitzetan, “pasibotasunak akabatu egiten dituelako aldaketarako grinak”.

| ANDER PEREZ |

GISA HONETAKO ekimen askotan bezala, pertsona gutxi batzuen kezkatik abiatu zen mugimendua, duela urtebete inguru. Denborarekin joan zitzaien jendea hamarnaka batzen, gaur egungo amalgama osatzeraino. Ainara Oyaga eta Iñaki Justes dira pertsona horietako bi. Batzarrean dabilen jendearen aniztasuna nabarmendu dute, baina alderdi edo sindikatu jakinen izenak aipatu gabe, “inork atzera egin ez dezan”. Nafarroako Aldaketa Sozialerako Batzarra osatzen duten horien zerrenda egin digute: “Ikusezinak, herritar hutsak, abertzaleak, espainol errepublikazaleak, sozialistak, komunistak, feministak, ekologistak, euskaltzaleak, transexualak, antikapitalistak, deshazkundearen aldekoak, internazionalistak...”. Sendo mintzo da Justes: “Trantsizioetik hona, Nafarroan hainbeste jende ezberdin elkartzen den lehenbiziko aldia da”.

Pertsonengan jarri nahi dute pisua, norberarengan. Baina, era batera edo bestera, argi dago aniztasuna. “Transbertsalitatea”, euren hitzetan. Eta Justesek argi dauka horren garrantzia: “Iritzi eta ibilbide politiko-sozial ezberdinetakoak izanda, transbertsalitateak ez bada, akabo, ez dago batzeko modurik”. Horixe da hain zuzen ere ekimen honen funtsa eta zentzua: ezberdinak batu, diferentziak ahaztu eta puntu komun gainean lan

egin. Halaxe azaldu du Oyagak: “Antzekoekin elkartzerakoan helburuak azkarrago lortu izan ohi dira. Gu mantsoago goaz. Baina bidea elkarrekin egitea bera da helburu”.

Bide horrek, dagoeneko, eman ditu bere lehen fruituak. Kostata, hala ere. “Bakoitzak bere motxila zekarren, eta hasiera ez zen erraza izan” dio Justesek. Baina bideak, eta orain arte egindako hiru asanbladak, askotarako balio izan dute.

“Nafarroako Gobernuan aldaketa ematea posible da, eta ez da hain zaila. Baina horrek ekarriko al du benetako aldaketa?”

**Iñaki Justes,
Aldaketa Sozialerako
Batzarreko kidea**

oinarrizko aldarrikapenak jasotzen dituen dokumentua osatu dute. Hamalau ardatz ditu agiriak, hasi eskubide sozial eta ekonomikoetan, eta bake prozesuraino. Tartean, besteak beste, euskararen aldeko jarra eta erreforma fiskalaren beharra daude.

Baina zehaztasunez harago, argia da helburua: Nafarroan aldaketa politiko eta soziala gauzatzea. Elkarrekin doaz bi hitzak, politikoa eta soziala, lehenak ez duelako zentzurik bigarrenik gabe. Horixe da hain zuzen Justesen kezka: “Nafarroako Gobernuan aldaketa ematea posible da, eta ez da hain zaila. Baina horrek ekarriko al du benetako aldaketa? Nik zalantza daukat horrekin. Benetako aldaketa politikoa lortzeko, aldaketa soziala baita beharrezkoa”. Eta aldaketa horrek, Oyagaren ustez, “sakona” behar du izan, “ez dugulako adabakirik behar”.

Jendarteak aldatu, dena aldatzeko

Nafarroako jendarteak badaki zer den aldaketaren ataritan egotea. Baina badaki ere zer den aukerak alferrik galtzen uztea. 2007ko kasua da adierazgarriena, PSOEek PSNri debekua ezarri zionean NaBairekin batera gobernu bateratua osatzeko, nafarren nahiari bizkarra emanez. Horregatik, ikusteke dago herri mugimenduan emandako aliantzak



NAFARROAKO ALDAKETA SOZIALERAKO BATZARRA

“Jendartea aldatu behar dugu dena aldatzeko” dio Ainara Oyaga Nafarroako Aldaketa Sozialerako Batzarreko kideak. Herritarrak batzea dute oraingo erronka. Bide horretan, apirilaren 12an egingo duten mobilizazioa mugarri izatea nahi dute.

eremu instituzionalean errepikatzen ote diren. Hori, edonola, garrantzitsua izanda ere, bigarren mailakoa da Aldaketa Sozialerako Batzarreko kideentzat. Jendartea aldatzea da euren erronka, hala, instituzioak aldatzera behartzeko. “Jendartea aldatu behar dugu dena aldatzeko”, dio Oyagak.

Oinarri baten gainean mintzo dira: gizartea bestelako balore eta praktiken arabera funtzionatzeko gai bada, instituzioek aldatzera behartuta ikusiko dute euren burua. Eta horrek, orain arteko inertziak errotik eraldatzea dakar: “Orain aukera dugu konturatzeko sistemak ez duela inoiz funtzionatu, baizik eta zu zeundela irabazleen aldean” —dio Oyagak—, “orain zuri egiten dizutena zuk beste batzuei egiten zeniolako”. Balioez ari dira, balio ekologikoez, aberastasunaren banaketaz, demokrazia parte hartzaileaz... Herritarrek martxan jar ditzaketen alternatibetan sinesten dute, eta hortxe ikusten dute aldaketarako pizgarria. “Ez badugu behetik ezer aldatzen, alferrik”, dio Justesek

laburbilduta.

Finean, pertsonen protagonismo hori da, euren ustez, alderdiengandik bereizten dituen. Aznarezek argi dauka ezberdintasuna: “Kalean gauzak ezberdin ikusten dira. Jende askok urrun ikusten ditu alderdi eta sindikatuak, beste orbita() batean bueltaka baleude bezala”. Eta kezka horrek eraman ditu, bere esanetan, herri mugimendu hau antolatzea: “momentua da orain arte erabilitako joerak aldatu eta herritarren beharrei aurre egiteko bestelako esparruak eraikitzeke”.

Esparru hori eraiki dute dagoneko, eta geroz eta herritar gehiago batzea da oraingo erronka. Bide horretan, apirilaren 12rako deitu duten mobilizazioa mugarri izatea nahi dute. Festa giroan antolatuko dute, herritarren arteko “elkar eza-gutza” bultzatu asmoz.

Ikusteke dago horren guztiaren emaitza, Nafarroan aldaketa gauzatu ote den, alegia. Eta galdera, hala planteatuta, “zientzia fikzio hutsa” da Justesen arabera, “ez baitago jakiterik”. Baina argi du zein

den Nafarroako Aldaketa Sozialerako Batzarren eginkizuna, “aldaketa hori gauzatzeko bidea erraztea”, alegia. Diskurtso horrekin bat dator Aznarez ere: “Aldaketak ez dira berehala egiten, masa kritiko handia behar da horretarako. Gure betebeharra indarrak bateratu eta aldaketarako espiritua eraiki eta zabaltzea da”. Eta momentuz, pausu txiki baina sendoz, bide hori egiten ari dira. ■



Dirudunek ez dutela gehienon munduan bizi nahi

Josep Maria Ruiz Simon filosofo katalanak idatzi berria du antzinatean herri xeheak handikiei mehatxu egiten zien bezala hiritik alde egitearekin baldin eta ez bazizkioten gutxieneko eskubideak bermatzen, orain munduko jende aberatsenak erabaki dutela gehiengoaren aldamenetik aldentzea. Gure kontu bizi daitezkeela gutaz ahazturik.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ZORREN ZAMA JASAN EZINEZKOA zutelarik, kontatu du Stephen Connellyk “*Occupy: a brief note on three antique responses to debt crisis*” idatzian, hiru irtenbide aurkitu zituzten jendeak Antzinaroan: zorrak barkatzea, ihes masiboa eta okupazioa. Burdin Aroaz geroztik, azken 5.000 urteotan zorra egon baita gatazka eta krisi nagusi guztien sustraian, David Graeberren *Debt: the first 5,000 years* ospetsuan azaldu bezala. Apalak txiroagotzen ziren zorpeturik, aberatsak are aberatsago bilakatzuten apalak zorpean ito arazirik.

Zorpetze masiboarentzako lehen konponbidea, agintariek berek ezarria: zorrak barkatzea. Hala egin omen zuen Solonek Kristo aurreko 594. urtean Atenasen, hirian zegoen egonezina lehertuko ez bazen. Debekatu zuen zorrak ez ordaintzeagatik inor esklabo hartzea eta aberatsek pilatu zezaketen lur kopurua mugatu zuen. Iraultza politiko soziala, hitz bitan.

Sumer eta Babiloniako kronikek bildu dute zorpetuen bigarren irtenbidea: hiritik ihes egin eta landa eremuetan nomada bizitzea. Antza denez, laborantzan edo aziendak zaintzen bizi zirenak adina ziren mendira ihesi joanda zebiltzanak. Horregatik asmatu zuten babiloniarrek *ama-gi* –“amarengana itzultzea”, hor badaukate opari polita

Euskal Herrian hain ugariak diren etimologiazaleek— edo zorren barkamena, zazpi urtean behin gertatzen dena.

Hirugarren soluzioa, iraultzaren eta ihesaren artekoa, Tito Livio kontatu zuen gero Machiavellik errepikatzeko: *secessio plebis*. Jende xehearen independentzia mehatxua.

Hainbeste jende xehe zegoen Erroman zorreatatik esklabo, miserian eta hilzorian, ezen eta sekulako kale istilua piztu baitzen. Horren aurrean, Conellyk laburbildu duenez, “patrizioek [aberratsak] armada Erromatik kanpora atera zuten eta herriar xehea Mendi Sakratura joan, aldarrikatuz hiri berria eraikiko zutela berentzako eskatzen zutena ematen ez bazitzaien. Plebeioek Erromatik bereizi eta horrela hiria menderatzeaz egin zuten mehatxu, jende guztiak ihesi joan eta hautsi egingo zutela zorren hartzekodunen jokoa”.

Occupy Wall Street eta antzeko protesta mugimenduek berriro aktualitate bihurtu dute zorren barkamenaren aldarria. Alde batetik XXI. mendeko patrizioek ingeniartza oso bat antolatu dute—Shockeko kapitalismoa deitu zuena Naomi Kleinek— herri xeheak bezala estatutak masiboki zorpetu ondoren zorrak likidatzeko, jende apalaren eta ondasun publikoen desjabetze izugarria.

Forbes aldizkariaren gunean ageri da Morgan Brennanen irudi ikusgarri hau: Indian Creek uhartea, Floridako itsas hegian, Biscayne Bay parajea. Indian Creek da AEBetako gune dirudunena. 2000.eko zentsuaren arabera, 33 pertsona bizi ziren bertan, 11 familia 14 etxetan, %97 yanki zuriak, gainerako %3 beltzak. Airetik ikus daitekeenez golf zelai ederrenera eta tenis klubera zuzeneko sarbidea daukaten etxeotako bat 2012an saldu zen 47 milioi dolarretan, Wikipediak dioenez. Munduko aberatsenen ondasunak misterio bikoitzak estaltzen ditu: batetik neurrigabeak dira, jabetzan daukatenak ez dauka proportziorik inork bizitzeko behar duenarekin; bestetik jende horiek salbuespenak dira gizarteko kide guztien masaren erdian. Berdin zaizkie gehienon arazo ekonomiko edo sozial nahiz ingurumenezkoak, beren mundua antolatu dute, ustez haien etorkizunak ez duela zerikusirik gurearekin.

Beste aldetik, langile mugimenduen mobilizazioetan bezala *Occupy*, 15M eta antzeko hainbeste mugimendutan islatzen dira zorpetzearentzako antzinako hiru irtenbideak: zorrak barkatzeko eskaria, zorpetu-txiroen sistemagandiko ihesa edo kanporatzea eta, baita ere, sistematik kanpo antolatze mehatxua.

Oligarkiaren sezesioa

Orain dela urte batzuk, *Secesión patricia* artikuluan idatzi du Gironako unibertsitateko filosofiako irakasle Josep Maria Ruiz Simonek, *La Vanguardian*, historiako lehen greba orokortzat aipatzen zen *secessio plebis* hura. Baina Ongizate Gizartearekin bukatu zen greba orokorra langile mugimenduen mito moduan. Langileek eta elite ekonomikoek elkarren beharra zutelakoan. Halako batean aipatzen hasi zen arte beste sezesio posible bat: aberatsena.

Bill Clintonen eta geroago Barack Obamaren aholkulari izandako Robert B. Reich 1991n plazaratu zuen “*The secession of successful*” ideia, arrakastatsuen edo garaileen bereiztea, sezesioa.

Reich *successful* edo garaileen artean ez soilik jende txit aberatsak, fardelean sartzen zituen ondoen bizi zen AEBetako gizar-



tearen 1/5. Ondo den bizi den %20 horien aldentzea “modu askotan mamitzen da. Hiri eta herri askotan aberatsenak kendu dituzte beren dolarrak denenak diren gune eta erakunde publikoen sustapenetik, diruak ezartzeko beren zerbitzu pribatueta. Parke eta zelai publikoak hondatu diren bezala ugaritu dira osasun klub pribatuak, golf klubak, tenis klubak, patinatze klubak eta bazkideen diruz ordaindutako klase guztietako aisialdirako guneak. Urbanizazio pribatueta bazkideek ordaintzen dituzte udalek pagatzen ez dituzten gastuak: kaleen eta bideen artapena, zuhaitzen kimaketa, piszinen garbitzea, pertsonak eta jabegoak zaintzeko guardak”.

1991rako ohartarazten zuen Reichek goardia pribatu gehiago zeuzkatela AEBetan estatuaren polizia baino. Eta hango hiri asko bi mundutan zatituta zeudela.

Reichek garrantzia berezia ematen zion *symbolic analyst* izendatu zituen jendeari. Gaur deituko genituzke “komunikazioaren gizarte berrian ari direnak” edo “etorkizuneko lanpostuetan ari direnak”: lanbidea sinbolo edo ikurrekin jokatzea dutenak, datuekin, hitzekin, idatziekin, ikus-entzunezkoekin. Horiek dira, aberatsenekin batera, %20 zoriontsuen muina.

“*Symbolic analyst* jendeak denbora eta energia asko xahutzen du beren hurrei bermatzeko eskola pribatu onetan hezte, zerga eskema aurre-

rakoiago batean hezkuntza publikoa hobetzeko balioko luketenak”.

Baina aberatsen sezesioa mundu osora zabaltzen da. Iaz Frantzia “*Le temps des riches : anatomie d’une sécession*” argitaratu zuen Thierry Pech *Alternatives Economiques* aldizkariako zuzendariak.

Pechen esanetan, orain kritikatzeko batzuen aberastasun izugarria, bizitzeko pertsona batek behar duenarekin inolako zerikusirik ez duena, baina aurretik sustatu egin da aberastea, fiskalitatean ere abantailak eskainiz. Neoliberalak aspaldi lortu zuten *trickle down* kontzeptua gizarteratzea: batzuen jabego pilaketa izugarria ona izan behar zuen, oparotasuna gero goitik behera tantaka kutsatuko zelako gizarte osoan...

Orain hasi gara ohartzeko meritukraziarena gezurra zela, aberatsek ez dutela nahi beren altxorra seme-alabei pasatzea besterik. Eta hala ere aberastasun esajeratuak liluratu egiten ditu txiroak, inbidia pizten, arrakasta pertsonala erlijio bilakatu da.

Eta azkenean, Ruiz Simonek akaberan dioten gisan, “Occupy Wall Street eta *indignadoek* [antzinako] *secessio plebis* birziklatu nahi izan zutenean zera aurkitu zuten: gizar-tearen gehiengoarengandik alde egiteaz mehatxu egiten zuen %1 aberatsen hori mentalki ez zegoela hirian. (...) Eta enpresen deslokazioaren estratageman aurkitu du greba orokorraren matxu zaharra baino masak hezteko arma (*arma de persuasión masiva*) bortitzagoa”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Kale itsua

KAPITALISMO industrial *mailegismoa* (maileguaren sistema) bilakatu dela irakurri diot Richard Duncani *New Left Review* aldizkarian (abendua 2012). Eta etengabe agertzen dira albiste eta datuak esanez aberastasuna gero eta okerrago banatzen dela. Azken 30 urteetan AEBetako %1 aberatsenak bere errentak bikoiztu egin dituela dio Manuel Vicenç ekonomialari katalanak, eta %0,1ak hiru bikoiztu. 2014an krisitik ateratzen hasiko ei gara Espainian eta Hego Euskal Herrian, baina AEBen norabide berean ei goaz Europar Batasunean. Hola azaltzen du bere analisisia Duncanek.

MAILEGUA. 70eko hamarkadaren hastapenean hasi zen kontua, dolar-patroiak urre-patroia ordezkatu zuen eta AEBen dolarrak munduan barrena zabaldu ziren. Aurrerantzean, AEBetako Gobernuak dolarrak inprimatzearekin konponduko zituen bere ekonomi arazo gehientsuenak. Dolarra barra-barra ari zenez han hemenka, mailegua inoiz ez bezala hasi zen hedatzen interes txikian, AEBetako herritarren eroste ahalmena handituz eta hainbat herrialdetako ekonomia kiskaltzeraino berotuz, burbuilak sortu eta hauek lehertzeraino: Tailandia, Japonia, tigre asiarrak, Hego Amerika, Europar Batasuna... Baina mailegu sistema honetan beti da arazo bat, uneren batean ezin dira interesak ordaindu, burbuila lehertu egiten da eta ondorengoa ezaguna zaigu. *Mailegismoan* ekonomiaren zikloak azkarrago eta indartsuago hedatzen dira eta uzkurto ere bai. 1964an AEBetako zor osoa (federala, herritarrek, enpresak, bankuak) bilioi bat dolarrekoa zen eta 2007an 50 bilioikoa. Naturalizat

hartu da hori, baina horrek munduko ekonomia eraldatu du.

INDUSTRIA. XX. mendearen azken bi hamarkadetan AEBek uko egin zioten beren industria nagusitasunari, ohartu zelako askoz aberastasun handiagoa erakar zezakeela bere industria atzerriar eta atzerrian oso soldata txikiekin ekoiztuz. Azken finean, AEBetako gizarteko sektore indartsuenei komeni zitzairen dolarra indartsu izatea eta beste herrialde ekoizle askotako moneta ahul mantentzea, horrela bere merkatua esportazioz hornitzeko. 90eko hamarkadatik aurrera biziki azkartu zen prozesu hori, batez ere Txinarekin. Prozesu horretan, estatubatuar langileen soldatak jaisten hasi ziren eta errentak ere bai, erosteko ahalmenean nabarmen eragin arte. Mailegu merkeak konponduko zuen soldaten jaitsierak izorratutako erosketa ahalmena. 2007an burbuila lehertu zen arte. Dolar gehiago inprimituz estali ziren bankuek utzitako galea erraldoiak. Eskala txikiagoan bada ere, Europako Banku Zentralak eta Ingalaterrako Bankuak ere antzerako bidea jarraitu dute. Mailegua sortzeko molde honek orain arte ez die eragin produktu industrialei, baina bai elikadurari, sal-neurriek gora egiten dute eta honek arazo larriak sortzen ditu munduan.

TXINA. Kazetaria: 2003an zuk esan zenuen txina lehertzeaz zegoen burbuila zela. Nola ikusten duzu orain? Duncan: Lehertzeaz dagoen burbuila handiago baten gisa. Orduan Txinaren superabit komertziala 80.000 milioi dolarrekoa zen urtero, orain 300.000 milioikoa. AEBek ezingo diote horri eutsi eta horrek

arazoak sortuko dizkie. 2009an, Txinaren superabitak behera egin zuen eta lantegietako 20 milioi langilek beren lanpostuak galdu zituzten. Burbuila lehertzeaz izan zen orduan. Zein da Txinako ereduaren arazoa? Hamarkadatan industri hazkundera %20koa izan dela eta orain sektore guztietan soberakin handiak direla. Estatubatuarrek ezin dute gehiago erosi eta txinatarren %80k 10 dolar baino gutxiago irabazten du eguneko, eta horrekin ezin dituzte erosi eurek ekoiztitakoak. Herritarren piramidean oinarriaren eroste ahalmena handitzea ezinbestekoa da, bestela munduko ekonomia industria iraultzaren garaietaraino abiatuko da.

BOTEREA. Feudalismoan jauntxoek zuten boterea, kapitalismo industrialean enpresa handietako jabeek eta egun bankariek. Inork ezin die aurre egin. Ez dago irtenbiderik, beraz? Duncanen ustez ez da ziklo aldaketa klasikorik izango: edo sistema berria menperatzen dugu eta mailegua sortzeko ahalmena gizateriaren onerako ekoizpenetan erabiltzen da —energia berriztagarriak, bioteknologia...— edo munduko ekonomia depresio erraldoian eroriko da.


Amaitzeko, berriz Manuel Vicenç: AEBetako populazioaren %1 aberatsena eta klase politikoa-ren arteko harremana orain arte inoiz ikusi gabekoa da. Konplizitatea hain da handia ustelkeria legeztatu egin dela. “Horrela, ELGako estatu ustelenetakoa garbietenakoa moduan agertzen da, politikoak erostea ez delako legez kanpokoa AEBetan, ohikoa da eta guztiz zabaldua dago”.

Eta doinua ezagun egiten da. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Beasain

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 14 · 22:15
Usurbe antzokia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1



HAMLET Igorre

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 16 · 19:00
Lasarte aretoa

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2

Ekain berri




Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

4



Argia kamiseta

2 kamiseta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2403. Argia)

HAMLET - LEKEITIO

- Jose Mari Ogando Rodrigez (Lekeitio)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

HAMLET - ELORRIO

- Ima Eguen Balanzategi (Elorrio)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

HAMLET - OTXANDIO

- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Eukeni Abasolo Galdeano (Gasteiz)

Kultur Maratila GABRIELEN LEKUA

BERTSOAK / MUSIKA / ANTZERKIA

- Leire Izagirre Lizarralde (Aulesti)
- Jon Askasibar Arruti (Urretxu)

OKATXU Komikia

- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

ZELO-APAREIA
HEMENDI VITI